

**2017ko MAIATZAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko maiatzaren 25ean, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and. Xabier Vazquez Izquierdo jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Osoko bilkura hasi aurretik, **alkate** jaunak gogora ekarri du INAXIO LERTXUNDI AMEZTOI JN., Santa Marina egunean (maiatzaren 21ean) zendu zena. Bihotz handiko gizon handia, 1979. urtetik 1991. urtera bitartean Zarauzko Udaleko zinegotzi jardun zuen, eta Udaletik kanpo Zarauzko hainbat eta hainbat erakunde eta elkarterekin egin zuen lan Inaxiok. Halaber, Udalbatzaren izenean, dolumina sentikorrena adierazi dio familiari.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2017ko APIRILAREN 27ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 19ra

Segidan, Alkatezak 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 19ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 8ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 8ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTE HONEN BERRI JAKITEA:

– 0564 Dekretua: 2017-KALD-000001-00 zk. (Kreditu txertaketa)

2017 D 200 0003 espedientea

Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, ondoren jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatezaren 0564 Dekretua, 2017ko apirilaren 25ekoa:

“Ikusita espedientean dauden agiriak, **ERABAKI DUT**:

UDALA U-TX-01 kreditu aldaketarako espedientea ONARTZEA, modalitatea: kredituen txertaketak, 592.183,80 euroko zenbatekoaz, ondoren zehaztutako laburpenaren arabera:

KREDITU TXERTAKETA

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINAK
1 0401.227.07.463.00 2016	Azterketa eta lan teknikoak	53.663,50
1 0401.600.04.171.00 2016	Astiko zuhaitz parkea	50.000,00
1 0401.600.05.171.00 2016	Parke estalia	190.000,00
1 0401.600.02.462.00 2016	Arrauneko fosoan entreplanta	4.356,00
1 0401.622.02.151.00 2016	Astiko aldagelak	130.000,00
1 0601.211.01.330.00 2016	Mantentze-lanak: eraikinak	2.541,00
1 0610.226.01.336.20 2016	Kultur ondarearen ekintza plana	9.316,88
1 1102.226.11.419.00 2016	Nekazaritzaren sustapena	32.500,61
1 1201.226.10.924.00 2016	Erastun berde-urdina proiektua	91.542,91
1 1401.227.01.340.00 2016	Kirol plana	20.207,00
1 1501.625.99.338.00 2016	Bestelako inbertsioak	2.849,55
1 1601.622.01.925.00 2016	Haz egokitzapena	5.206,35
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		592.183,80

FINANTZA-BALIABIDEAK

2 0301.870.01.000.00 2016	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	592.183,80
GUZTIRA		592.183,80

5.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTE HONEN BERRI JAKITEA:

– 0628 Dekretua: – 2017-KALD-000002-00 zk. (Kreditu gehigarriak)

2017 D 200 0001 espedientea

Era berean, Udaltzarak ebazpen honen berri izan du:

Alkatetzaren 0628 Dekretua, 2017ko maiatzaren 10ekoa:

2017-KALD-000002-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak: 2017ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita kontu-hartzaileak espedientearen alde egin duen txostena, **ERABAKI DUT:**

2017-KALD-000002-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea onartzea. Udal honek aurtengo ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, egindako proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	14.000,00€
6	Inbertsio errealak	1.375.640,00€
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.389.640,00 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	1.389.640,00 €
GUZTIRA ...		1.389.640,00 €

6.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA: 2017-KALD-000003-00 zk. (Kreditu gehigarriak). HASIERAKO ONESPENA.

2017 D 200 0004 espedientea

2017-KALD-000003-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak: 2017ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita kontu-hartzaileak espedientearen alde egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

2017-KALD-000003-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea onartzea. Udal honek aurtengo ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, egindako proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
6	Inbertsio errealak	2.100.000,00€
GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...		2.100.000,00 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	2.100.000,00 €
GUZTIRA ...		2.100.000,00 €

7.- KREDITU KONPROMISOAK ONARTZEA

2017 D 200 0006 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	7	(5 EH Bildu, , 2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

“Konpromiso kredituen espedientea tramitatu du Udalak.

Ikusita kontu-hartzaileak egin duen txostena eta espedientean dauden dokumentuak, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak (botoen gehiengoarekin)

ERABAKI DU

KONPROMISO KREDITUEN ESPEDIENEA onartzea, honako laburpen honen arabera:

PARTIDA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK			GUZTIRA €
		2017	2018	2019	
	Azken Portu Goiko igogailua	500.000,00 €	303.000,00 €		803.000,00
	Alde Zaharreko peatonalizazioa	400.000,00 €	423.000,00 €		823.000,00
	Ondare-ondasunen erosteka	500.000,00 €	500.000,00 €		1.000.000,00
	GUZTIRA				2.626.000,00

Beraz, konpromiso kredituen eranskina ondorengoa litzateke:

KONPROMISO KREDITUEN ERANSKINA (21/2003 Foru Arauaren 6.1.e artikulua)

PARTIDA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK			GUZTIRA €
		2017	2018	2019	
5 1101.717.01.150.00	Aiako Udala. Frontoia	90.000,00	0,00		90.000,00
5 1102.601.00.172.00	Iñurritza erreka ingurua hobetzea	40.000,00	354.503,61	384.045,58	778.549,19
	Azken Portu Goiko igogailua	500.000,00	303.000,00		803.000,00
	Alde Zaharreko peatonalizazioa	400.000,00	423.000,00		823.000,00

	Ondare-ondasunen erosketa	500.000,00	500.000,00		1.000.000,00
GUZTIRA					3.494.549,19

8.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA

2015 I121 0017 espedientea

Proposamena irakurri eta aztertu ondoren, bilkuran dauden zinegotziek baiezkotzea botoa eman diote. Beraz, aho batez, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko politikak bere lanean txertatzea da herri-administrazioen erronka handienetakoa bat. Egia da badirela arau eta lege ugari behar izan behar horri erantzuteko, baina orobat egia da oztopo gogorak daudela oraindik alde guztietan gizon eta emakumeentzat bidezkoa eta berdinzalea izango den gizarte bat eraikitzeko behar diren aldaketak egiteko.

Zarauzko Udalak aspaldi agertu zuen bere konpromisoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde. Horren erakusle dira, besteak beste, azken urteotan udalerrian onartutako hiru berdintasunerako planak (2004-2007, 2010-2014 eta 2016-2021). Plan horietan daude bilduta Udalaren ekintza-lerro estrategikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bizitzeko hainbat esparrutan bultzatzeko.

Orain, Ordenantza honen bitartez beste urrats bat ematen du bide horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunari goragoko maila bat emanez hala praktikan nola sinbolikoki, eta herrian aplikatuko den berdintasunerako politikaren oinarriak finkatuz.

Berdintasunaren kultura bultzatzea da Ordenantza honen helburua, eta oinarritzat dauka borondate politiko bat herriko errealitatean aldaketak egiteko, baita jarduera-molde berdinzaleak bultzatu eta arautzeko hala administrazio-mailan nola gizarte-mailan.

Zarauzko Udalak Ordenantza honen bidez justizia soziala bultzatzen du, baita gizarte-jasangarritasuna eta zaraustar guztien bizi-kalitatearen hobekuntza ere.

Herritarren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ZARAUZKO UDAL ORDENANTZARI, Herritarren arloko informazio-batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ZARAUZKO UDAL ORDENANTZA behin betiko onartutaz emango da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ZARAUZKO UDAL-ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

I.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko politikak bere lanean txertatzea da herri-administrazioen erronka handienetako bat. Egia da badirela arau eta lege ugari behar izan behar horri erantzuteko, baina orobat da egia oztupo gogorak daudela oraindik alde guztietan gizon eta emakumeentzat bidezkoa eta berdinzalea izango den gizarte bat eraikitzeko behar diren aldaketak egiteko.

Zarauzko Udalak aspaldi agertu zuen bere konpromisoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde. Horren erakusle dira, besteak beste, azken urteotan udalerrian onartutako hiru berdintasunerako planak (2004-2007, 2010-2014 eta 2016-2021). Plan horietan daude bilduta Udalaren ekintza-lerro estrategikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bizitzeko hainbat esparrutan bultzatzeko. Orain, Ordenantza honen bitartez beste urrats bat ematen du bide horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunari goragoko maila bat emanez hala praktikan nola sinbolikoki, eta herrian aplikatuko den berdintasunerako politikaren oinarriak finkatuz.

II.

Azken hamarkada hauetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia poliki-poliki sartzen joan da estatuz gaindiko entitateen zein estatuen agenda politikoetan, baita horien antolakuntza-administrazioetan ere. Ildo horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, botere publikoen konpromisoa adierazten duten arau garrantzitsu eta ugari sustatu dira Nazioarteko Erkidegoan, Europar Batasunean, Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Esparru unibertsalean, helburu hori hitzarmen hauetan dago jasota batez ere:

- Emakumeen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa (1952an onartua eta espainiar Estatuak 1974ko apirilaren 14an sinatua).
- Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeke Konbentzioa (1979ko abenduaren 18an onartua eta espainiar Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsia), eta Konbentzioaren Hautazko Protokoloa (1999ko urriaren 6an onartua).
- Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeke buruzko Adierazpena (1993ko abenduaren 20an onartua).
- Beijingo Adierazpena eta Emakumei buruzko Nazio Batuen IV. Munduko Konferentziako Ekintza Plataforma (Beijing, 1995), eta gerora egindako bilkurak: Beijing+5 (New York, 2000), Beijing+10 (New York, 2005), eta Beijing+15 (New York, 2010).
- Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak, baita Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzkoak ere (1966, 1977an berretsiak).
- Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa, eskubide sexualei eta ugalketa eskubidei buruzkoa (1994).

Europako esparruan, aipagarriak dira Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950ko azaroaren 4an onartua eta espainiar Estatuak 1979ko urriaren 10ean berretsia), Amsterdamgo Ituna eta 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen izenpetutako etxeko indarkeria eta emakumearen indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeke Europako Kontseiluaren Hitzarmena, baita 2002/73/CE, 2004/113/CE eta 2006/54/CE zuzentzarauak ere.

Espainiar Estatuaren mailan, oinarriko erreferentziak dira: Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua; 2003ko urriaren 13ko 30/2003 Legea, gobernuak egiten dituen arau xedapenetan genero-eraginaren balorazioa jasotzeko neurriak buruzkoa; 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa

emateko neurriei buruzkoa; eta 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa, herri-administrazioak eta enpresak inplikatzan dituenak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan, aipagarria da 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetarako, foru- eta udal-administrazioak barne, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskumen esparrua zehazten baitu. Bukatzeko, nabarmentzekoa da hamar urte beranduago, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Araua.

III.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ordenantza bat beharrezkoa da emakumeen aurkako bazterkeria borrokatzeko. Bazterkeria hori egiturazko elementu unibertsala den heinean, gure herrian ere badu eragina eta oztopatzen ari da Zarautzen garapen sozial, ekonomiko eta humanoa. Udalak funtsezko papera jokatzen du arlo horretan, ezberdintasunak udalerrietan gertatzen direnez, Udala delako arazo larri hori pairatzen duten pertsonengandik hurbilen dagoen erakundea, eta beraz, ekimenak beraren hiritarren errealitate, arazo eta beharrezanetara egokitzeko posizio egokiena duena.

2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, Ordenantza honen ondoretarako zuzeneko bereizkeria izango da pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Aldiz, zeharkako bereizkeria izango da egintza juridiko edo irizpide batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean. Ez dira sexuaren ziozko bereizkeria kontsideratuko justifikazio objektiboak eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere. Neurri horien artean, helburu hauek dituztenak sartu behar dira: emakumeentzako ekintza positiboa, sexuei arrazoi biologikoengandik babes berezia eman beharra, edo gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zainketan parte har dezaten sustatzea.

Berdintasunaren kultura bultzatzea da Ordenantza honen helburua, eta oinarritzat dauka borondate politiko bat herriko errealitatean aldaketak egiteko, baita jarduera-molde berdinezaleak bultzatu eta arautzeko hala administrazio-mailan nola gizarte-mailan. Zarauzko Udalak Ordenantza honen bidez justizia soziala bultzatzen du, baita gizarte-jasangarritasuna eta zarauztar guztien bizi-kalitatearen hobekuntza ere.

IV.

Ordenantzak XXI kapitulu ditu. Lehenengoan gai orokorrak aztertu dira, hala nola xedea eta arau-esparrua, jomuga, helburuak, aplikazio-eremua eta printzipioak. II. kapitulutik XIV.era bitartekoetan, funtsean tokiko erakundeen lanean genero-ikuspegia txertatzera bideratutako egitura eta neurriak arautu dira. XV. kapitulutik XX.era bitartekoetan, berriz, esku-hartzeko sektoreetan, hala nola hedabideetan, gizarte-zerbitzuetan, hezkuntzan, jarduera ekonomikoan, osasungintzan, kulturaren, kirolean eta ingurumenean, berdintasuna bultzatzeko neurriak jaso dira nagusiki. Azkenik, XXI. kapituluaren emakumeen aurkako indarkeria aztertu da, horixe baita emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarri nagusia.

I. KAPITULUA *Xedapen orokorrak*

1. artikulua. *Xedea eta arau-esparrua.*

1. Ordenantza honen xedea da nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauen esparruan, emakume eta gizonen berdintasunak udalerrietan izan beharreko araubide juridikoa ezartzea. Abiapuntu gisa, emakumeen aurkako diskriminazioa fenomeno unibertsala, menderatzailea, egiturazkoa eta sistemikoa dela aitortzen du.

2. Aurreko atalean ezarritakoarekin bat etorritik, Ordenantzak indarrean dauden arauak beteko ditu. Berebiziko garrantzia dute honako hauek, arautu beharreko arloak dela eta:

a) Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1979ko abenduaren 18an onartua eta espainiar Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsia).

b) Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

c) Genero-eraginari buruzko balorazioa araudi-xedapenetan sartzeko neurrien gaineko urriaren 13ko 30/2003 Legea.

d) Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.

- e) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- f) Toki-Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, 2006koa.
- g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

2. artikulua. *Helburuak.*

1. Udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiestea, eta genero-sistemak sortutako diskriminazio-era guztiak desagerraraztea.
2. Emakumeen banakako eta taldekako jabekuntza sustatzea eta beren jarrera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea.
3. Zarauzko herrian identitate eta sexu-aukeren aniztasunaren aitortza ahalbideratzea.
4. Horretarako, Udal Gobernuak, berdintasunarekin eta aniztasunarekin duen konpromisoa ezagutzera emateaz gain, gainerako erakunde publiko eta politikoen laguntza lortzen ahaleginduko da, baita erakunde pribatuena eta gizarte zibilarena ere.

3. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Ordenantza hau Zarauzko Udalaren administrazioan ezarriko da, eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publikoetan ere bai.

2. Erakunde pribatuei ere ezarriko zaie, Ordenantzak berak ezartzen dituen kasuetan eta, bereziki, Zarauzko Udalarekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde pribatuei, edo Zarauzko Udalak emandako diru-laguntzak jasotzen dituztenei.

4. artikulua. *Oinarrizko printzipioa eta printzipio instrumentalak.*

1. Ordenantza honen funtsezko arau-oinarriak Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9.2d) artikulua dira; horien arabera, botere publikoek norbanakoek osatzen dituzten taldeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra erdietsi behar dute.

2. Aurreko atalean aipatutako berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko, 4/2005 Legearen 3. artikulua araberako gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko botere publiko guztien lana zuzendu eta bideratu behar duten printzipioak baliatuko ditu udal-botereak:

- a) Tratu-berdintasuna.
- b) Aukera-berdintasuna.
- c) Aniztasuna eta desberdintasunarekiko errespetua.
- d) Genero-ikuspegia txertatzea.
- e) Ekintza positiboa.
- f) Sexuaren araberako rol eta estereotipoak ezabatzea.
- g) Ordezkaritza orekatua.
- h) Koordinazioa eta lankidetzak.

3. Aurreko atalean aipatutako printzipioen interpretazioa 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotzen den haien definizioarekin bat etorriko da.

II. KAPITULUA

Ordezkaritza politikoa eta udal-organoen osaketa

5. artikulua. *Ordezkaritza edo eraketa orekatua.*

1. Ordezkaritza edo osaketa orekatua hitzez ulertuko da egoera bat zeinetan bermatuta dagoen gizon eta emakumeen presentzia, halako maneraz non, kasuan kasuko taldean, sexu bakoitzeko pertsonak ez diren izango taldekide guztien %60 baino gehiago ez %40 baino gutxiago. Helburua da bermatzea emakumeen eta gizonen presentzia dagokien baino ordezkaritza gutxiago dituzten organo eta esparruetan.

2. Zarauzko Udalak ordezkaritza eta osaketa orekatua bultzatuko du bere administrazio-organoen guztietan. Oreka hori bete ezean, kasuan kasuko organoaren lehendakariak zuzenean beharko du txosten baten bidez zergatik ez duen

betetzen artikulua hori, txosten hori erreferentziazko espedientean jasoko du eta Zarauzko Parekidetasun Departamentuaren eskura jarri.

6. artikulua. *Eragindako organoak.*

1. Hauteskundeen ostean sortzen den Udal Gobernuaren osatzean, ordezkariak edo osaketa orekatua aplikatuko zaio, eta oreka hori bermatuta egon behar da Batzorde Iraunkorrek osatzean, baita sortu daitezkeen beste batzordeak osatzean ere: Bozeramale Batzordean, izendapen askeko karguetan, epaimahaietan, hautaketa-epaimahaietan, udal-kontseiluetan, parte-hartze organoetan, baita gainerako udal-organoen osaketan ere.

2. Salbuespen gisa, eta ondorengo kasuetarako, Zarauzko Parekidetasun Departamentuak oniritzizko txostena egingo du, ordezkariak orekatuaren printzipioa ez aplikatzeko:

a) Kasuan kasuko udal-arloak ukitzen duen sektore eta jarduera esparruan ari diren gizon nahiz emakumeen kopurua %40ra iristen ez denean. Holakoetan, bermatu egin behar da gutxien ordezkariak sexuko pertsonak ordezkariak izan daitezela gutxienez sektore edo esparru horretan sexu horrek daukan presentziaren neurri berean, salbu ondoko ataletan adieraziko diren inguruabarrak ematen diren kasuetan.

b) Emakumeen ordezkariak %60tik gorakoa denean. Ulertuko da gainordezkariak hori bat datorrela emakumeek erabakiguneetan azpiordezkariak daudelako pairatzen duten desberdintasun egoera zuzentzeko helburu orokorrekin.

c) Ez dagoenean sexu jakin bateko pertsonarik kasuan kasuko organoan parte hartzeko behar den jakintza, gaitasuna eta prestakuntza daukanik, edo, nahiz eta egon, ez duenean organo horretan aritu nahi edo ezin duenean aritu ekarriko liokeen lan gainkarga dela medio.

d) Karguaren arabera hautatutako kidez osatutako administrazio-organoen kasuan, edota izendapena erakunde edo antolakunde zenbaitek egiten dutenean. Holakoetan, ordezkariak orekatuaren printzipioa mantendu behar da erakunde edo antolakunde bakar batek izendatutako pertsonen dagokienez, non ez zaien aplikagarri aurreko ataletan azaldutako egoeraren bat.

7. artikulua. *Laguntzarako neurriak.*

Ordezkariak edo eraketa orekatua bultzatu eta defendatzeko, Zarauzko Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, hurrenez hurren, helburu hauek betetzeko:

a) Hautatutako ordezkariak ez dezaten pairatu portaera edo hizkera estereotipaturik edo bestelako edozein jazarpen mota.

b) Hautatutako ordezkariak bizitza pribatua, lan bizitza eta bizitza publikoa elkarrekin uztartzeko modua izatea, segurtatuz ordutegiak eta lan egiteko moduek denei ahalbidetzen dietela beren zereginak osoki betetzea.

III. KAPITULUA
Parekidetasun Departamentua

8. artikulua. *Parekidetasun Departamentua.*

Parekidetasun Departamentua zeharkako organoa da, eta jarduteko bere eremu eskusiboa emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal mailako politikak bermatzea izango da. Zerbitzu egonkorra, etengabea eta irauteko asmoarekin sortutakoa da.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Zarauzko Udalak jarraituko du EAEko lege horretan jasotako eskumenak egikaritzen. Ondorioz, jarraituko du emakume eta gizonen berdintasunerako zerbitzua ematen, horren bidez bultzatu egiten baita politikan eta udal mailako jardunean genero-ikuspegia sartzea.

9. artikulua. *Adskripzioa, langile espezializatuak eta kolaborazioa.*

1. Parekidetasun Departamentua Alkatetzaren menpekoa izango da, legeari jarraikiz egin ditzakeen eskuordetzeak galarazi gabe.

2. Parekidetasun Departamentua berdintasun-arloko prestakuntza berezitua daukaten langilez osatuta egongo da.

a) Berdintasun-arloko prestakuntza berezitua egiaztatu egin beharko da, unibertsitateak, herri-administrazio batek nahiz organo ofizial batek emandako egiaztagiriz frogatuz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko gutxienez 150 orduko prestakuntza hartu izana, edota frogatuz gutxienez bi urteko lan-esperientzia izatea emakumeen eta gizonen berdintasun-eremuan.

b) Departamentuak baliabide pertsonal nahikoa izango du berdintasun-arloko prestakuntza berezitua duena eta berdintasunerako teknikari lanetan arituko dena, eta lanpostu horri emango zaion maila hierarkikoa behar bezainbatekoa izango da langile horrek modua izan dezan interlokuzioa egiteko Udaleko arloetako arduradunekin emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekimenak bultzatu, jarraipena egin, koordinatu eta ebaluatzeko.

3. Udaleko teknikari eta hautetsi guztiak laguntza emango diote Zarauzko Parekidetasun Departamentuari.

10. artikulua. *Eginkizun orokorrak.*

1. Parekidetasun Departamentuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloa bultzatu, programatu eta aholkularitza emateko ardura izango du, bereziki Ordenantza honetan ezarritakoa betez.

2. Parekidetasun Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal-ordenantza segimendua eta ebaluazioa egingo du, urtero segimenduari eta ebaluazioari buruzko txostena eginez.

11. artikulua. *Eginkizun espezifikok.*

Parekidetasun Departamentuak gutxienez eginkizun hauek ditu:

- a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea.
- b) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzen dituzten sustapen-neurriak ezartzea.
- c) Indarkeria matxistaren kontrako politika, jarraipena eta ebaluazioa koordinatzeko lana bultzatzea gizarte-politikaren arloko eginkizunak eta eskumenak eratxikita dituen sailarekin edo zerbitzuarekin.
- d) Organo egiaztatzaile gisa jardutea genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitearen inguruan, eta aginduzko txostenak ematea.
- e) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekintza positiboko berariazko neurriak sortu eta bultzatzea.
- f) Genero-ikuspegia politika, programa eta ekintza guztietan sartzea bultzatzea maila guztietan eta fase guztietan, eta laguntza eta aholkuak ematea sailei eta menpeko gainerako organoei.
- g) Administrazioari atxikitako pertsonalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituen prestakuntza-beharren diagnostikoa eta kasu bakoitzean eskaturiko prestakuntza-motaren proposamena egitea, baita prestakuntza hori berrikusteko irizpideak eta lehenetsunak ere.
- h) Aholkularitza eta lankidetzatza administrazioak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituen zerbitzuekin eta haren menpeko gainerako organoekin.
- i) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16 eta 20.8 artikuluetan ezarritako ziodun txostenak emateko organo eskudun gisa jardutea.
- j) Herritarrak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez sentsibilizatzea, askotariko bereizkeriak kontuan izanik betiere.
- k) Askotariko bereizkeria pairatzen duten emakumeen oinarriko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzeko programak eta berariazko zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamena egitea eta horiek bultzatzea. Eginkizun hori eta aurrekoa betetzean, beste sail batzuekin koordinatu beharko da Departamentuaren lana sail bakoitzaren eskumenaren barruan.
- l) Udalerrian dauden balizko bereizkeria kasuak hautematea eta kasuok desagerrarazteko neurriak hartzea eta bultzatzea.
- m) Emakumeek erabakiak hartzeko tokiko eremuetan parte hartzea ahalbidetzeko berariazko neurriak bultzatzea eta egitea.

n) Indarkeria matxistaren ekintzen aurrezaintzaren, indarkeriaren biktimen laguntzaren eta jazarpenaren gaineko jarduketak antolatzea bermatzen duten lankidetzaren parte hartzea. Gainera, osasun-administrazioa, justizia-administrazioa, segurtasun indarrak eta kidegoak eta gizarte zerbitzuak ere inplikatu behar dituzte plan horiek.

o) Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako arauak betetzen dituela egiaztatzea, bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen II. tituluan bildutakoa.

p) Bere eskumeneko eremuko beste edozein.

12. artikulua. *Baliabideak.*

Zarauzko Udalak ordenantza honetan agindutako funtzioak garatzeko beharrezko giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak, materialak eta administratiboak emango dizkio Parekidetasun Departamentuari.

IV. KAPITULUA

Udal berdintasun-politikaren bultzada, kudeaketa eta koordinazioa

13. artikulua. *Udal barruko berdintasuna bultzatzea.*

1. Parekidetasun Departamentuaren eginkizunei eragin gabe, Udaleko sail guztiek bultzatu beharko dute, beren lan-eremuan, diskriminazioa desagertzea eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea.

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-politika eraginkorra izan dadin, Udaleko sailek modu koordinatuan lan egin beharko dute dagokion koordinazio-organoaren bidez. Berdintasunari dagokionez, Parekidetasun Departamenturako arduradun politikoek koordinazio hori bultzatu, kudeatu eta ikuskatzeko ardura izango dute, horretarako Zarauzko Udalak duen egitura zein antolaketa administratiboa eta politikoa kontuan harturik.

3. Aurreko epigrafean ezarritakoaren kaltetan izan gabe, behar diren batzorde edo lantalde sektorial, tekniko edo politikoak eratuko dira, genero-ikuspegia Zarauzko Udalaren arloetan garatzen diren politika publikoetan sar dadin.

14. artikulua. *Erakundeen arteko parte-hartzea.*

Berdintasunerako udal-politika bultzatzean, gainerako udallerriekin eta gainerako erakunde publiko zein pribatuekin koordinatuta egoteko, Zarauzko Udalak beharrezko ahalegin guztiak egingo ditu lehendik eraturik dauden loturei eusteko, eta dauden sareetan partaide izaten jarraitzeko, baita etorkizunean sor litezkeen bestelako sare eta koordinazio-formuletan parte hartzea bultzatzeko ere.

V. KAPITULUA

Bizitza politiko eta herritarren parte hartzea

15. artikulua. *Berdintasunerako Kontseilua.*

1. Emakumeek eta gizonen gobernuan eta udal-bizitza publikoan berdintasunez parte hartzen dutela ahalbidetu, erraztu eta bermatzeko, Zarauzko Berdintasunerako Kontseilua indartuko da herritarrek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiketan parte hartzeko organoa den aldetik.

2. Berdintasunerako Kontseiluaren helburua parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko erlazioak eta bideak ezartzea izango da, betiere erakundeon helburuak edo eginkizunak direla-eta lagungarriak badira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. Solaskidetzaren politikoa parte hartzeko gune bat da norbanako, mugimendu feministetako, emakumeen elkarteetako nahiz gizarte-izaerako beste elkarteetako ordezkariekin osatutakoa, bi helburu lortu ahal izateko: batetik, emakumei eragiten dieten udal-politiken eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko berariazko politiken aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko modua bideratzeko; bestetik, emakumeen autonomia eta jabeakuntza sustatzeko, herritar aktiboen jardunak indartuz bizitza publiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren eremu guztietan.

3. Halaber, Parekidetasun Departamentuaren bitartez, formulak bilatuko dira emakumeek banaka edo taldeka parte hartzen dutela bermatzeko eragozpenak desagerraraz daitezkeen. Horrela, emakumeen ahalduntzea sustatzen duten guneak sortzea sustatuko da.

VI. KAPITULUA

Udal-administrazioaren zerbitzura diharduten langileen trebakuntza eta gaikuntza

16. artikulua. *Berdintasunerako trebakuntza eta gaikuntza.*

1. 4/2005 Legearen 17. artikuluan xedatzen dena betez, eta genero-ikuspegia administrazioaren jardunean txertatzea ahalbidetzeko, bere pertsonalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan duen oinarritzko trebakuntza bermatuko du, trebakuntza progresiboa eta iraunkorra.

Herri-administrazioen euskal erakundeak, Zarauzko Udalak edo beste erakundeek emandako ikastaroen bidez gauzatu ahal izango da trebakuntza hori.

2. Aurreko ataleko helburua bermatzeko xedearekin, Zarauzko Udalak honako neurri hauek bultzatuko ditu:

a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta administrazio-jardueran aplikatzeari buruzko edukia txertatzea udal-enplegua eskuratzeko prozesuetako gaitegi guztietan.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko formakuntza jarraitua ematea udal-langileei, udal-mailan garaturiko prestakuntzatan genero-ikuspegia txertatzea; eta erantzukizun politikoa duten pertsonak sentsibilizatzeko planak egitea eta betearaztea Parekidetasun Departamentuarekin batera.

c) Pertsonalak berdintasunaren arloko prestakuntzan inbertituriko denbora baloratzea, Udalean indarrean dagoen Prestakuntza Araudian jasotako irizpideen arabera.

d) Agintaldi bakoitzeko lehen urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan trebatzea nahitaz politikari guztiak, gutxienez 5 ordu beteta. Parekidetasun Departamentuak onetsi beharko ditu edukiak.

e) Udal-teknikari nahiz ordezkari politikoei udalaren berdintasunerako politiken ildo nagusiei buruzko informazioa ematea, indarrean dauden jarduera-irizpideak jakinaraziz.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikastaroei edota jardunaldiei buruzko informazioa ematea Zarauzko Udaleko teknikariei edo ordezkari politikoei, Parekidetasun Departamentuaren bitartez.

VII. KAPITULUA

Berdintasunerako Plana

17. artikulua. *Definizioa.*

Emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean Zarauzko udal-politika nola garatu eta gauzatzeko den aldira behin jasotzen duen agiria da Berdintasunerako Plana.

18. artikulua. *Esku-hartzerako eremuak eta gogoeta espezifikoko neurriak.*

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.3. artikuluan xedatzen denari kalterik egin gabe, jarduketa-neurri zehatzak garatuko ditu Berdintasunerako Planak Ordenantza honetan aurreikusitako berdintasunerako esku-hartzeko edozein sailetan, baita interesgarriak izan litezkeen beste batzuetan ere.

2. Halaber, Berdintasunerako Planak edo horren ondorioz egin litezkeen plan edo programa zehatzek arreta berezia jarri beharko dute zenbait aldagaitan, hala nola adinean, jatorrian, aniztasun funtzionalean edo sexu-orientazioan esaterako, eta taldeei berriaz eragiten dieten beharrak ezarri behar dira askotariko bereizkeria sortzen denean.

19. artikulua. *Prestaketa eta kontrola.*

1. Parekidetasun Departamentuak diseinatu eta bultzatuko du Berdintasunerako Plan berria, eta bere gain joango da Plan horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

2. Aurrekoa gorabehera, bere helburu eta jarduera-lerroak zehazterakoan, Berdintasunerako Planak bete egingo ditu Gipuzkoako edota EAEko berdintasunerako organismoek onartutako plangintza, mekanismo eta zehaztutako gidalerroak, baldin eta hala eginez ez bazaie ezelango okerrig egiten gizon-emakumeen arteko berdintasun arloan Zarautzen ohartzen diren beharrezan eta lehentasunez.

3. Halaber, Ordenantza hau izango da oinarri eta abiapuntua Berdintasunerako Planaren edukiak, norabidea eta jarduera neurriak finkatzean.

4. Berdintasunerako Plana prestatu aurretik diagnostiko orokor nahiz sektorial bat egin beharko da jakiteko zein den Zarautzen emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoera. Diagnostiko hori lagungarri izango da dagozkion eremuetan lehentasunak finkatzeko udal-politikarekin eta, orobat, herrian ohartutako beharrian, interes eta arazoekin koherentzia zainduz.

5. Berdintasunerako Planak plangintzako osagai batzuk izango ditu, eta euren artean, gutxienez, ondokoak: helburu orokorra, helburu zehatzak, lerro estrategikoetan sartutako lan-esparruak eta arlo bakoitzean garatu beharreko programak.

6. Bere kontrola ahalbidetzeko, Berdintasunerako Planean zehaztuta egongo dira bere ibilbidean prestatu beharko diren jarraipen-txostenak, bere ebaluazioa egiteko aplikatu beharreko irizpideak eta bere lana gauzatzeko izango dituen baliabide eta tresnak. Era berean, Berdintasunerako Planaren diseinuan kontuan hartu behar dira Udalak eduki ditzakeen beste plan nahiz dokumentu estrategikoetan jasotako helburu eta edukiak behar den egokitzapena egiteko.

7. Zarauzko Udalak, Parekidetasun Departamentuaren bitartez, partaidetza-prozesuak diseinatu eta bultzatuko ditu Berdintasunerako Kontseiluarekin elkarlanean, aukera emateko herritarrei, dela taldeka nahiz banaka, parte hartzeko Planaren idazketa-lanetan. Parte-hartze hau Planaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesuetara ere zabalduko da, Parekidetasun Departamentuak eta haren arduradun politikoei xedatutakoaren arabera.

8. Berdintasunerako Planaren inguruan komunikazio- eta hedatze-mekanismo egokiak egotea ziurtatuko da.

20. artikulua. *Txostena.*

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legearen 15.4 artikuluari jarraituz, Emakunde Emakumearen Euskal Institutuari Berdintasunerako Planaren berri eman beharko zaio onartu aurretik, hark bere txostena egin dezan.

21. artikulua. *Onarpena.*

1. Udalaren Osoko Bilkurak onartu edo luzatu beharko du Berdintasunerako Plana, Parekidetasun Departamentuak proposatuta. Luzapenerako beharra Zarauzko Parekidetasun Departamentuak informatu beharko du.

2. Planaren indarraldia izango da bere bitartez bete nahi diren helburuen arabera.

3. Udalaren Osoko Bilkurak Planaren indarraldia bukatu baino lehen onartuko du Planaren luzapena edo Plan berria diseinatzea.

22. artikulua. *Urte osoko ekintza-programak.*

1. Urtero prestatu behar dira Berdintasunerako Planean oinarritutako jarduera-programak.

2. Urte hasieran, jarduera-programan adieraziko dira Berdintasunerako Planeko zein neurri zehatz gauzatuko diren urte horretan, zein baliabide dauden eskura, erabili daitezkeen bitartekoak eta espero diren emaitzak.

3. Planaren jarraipenerako adierazle-sistemako datuetan oinarrituta, urte amaieran jarraipen- eta ebaluazio-txosten bat prestatuko du Parekidetasun Departamentuak ikusteko zenbateraino bete den programatutakoa, zein izan den programaren eragin soziala eta zein diren hobekuntza proposamenak.

VIII. KAPITULUA *Udal-ikerketak eta estatistikak*

23. artikulua. *Estatistika eta ikerketen egokitzapena*

1. Ordenantza honetan jasotako arauak betearazteko eta eraginkortasunez bermatzeko genero-ikuspegia bere ohiko jardunean txertatzen duela, Udal Gobernuak, bere eskumenen alorrean, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 16. artikulua «a» letratik «f»-ra bitartekoetan ezarritakoa bete beharko du:

a) Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan gutxienez sexu-aldagaia sistematikoki sartu, erantzunen artean ezarritako sexu-binomiotik aparte, “gizonezkoa”, “emakumezkoa” edo “ beste batzuk” aukera emanaz.

b) Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko.

c) Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku-hartzeko eremuetan.

d) Sartutako aldagaiak sexu-aldagaia oinarri hartuta ustiatu eta aztertzeak adinako lagin zabalak aurkeztu.

e) Dauden datuak ustiatu; horrela, esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izango da.

f) Gaur egun dauden estatistika-definizioak berrikusi eta, hala badagokio egokitu, emakumeen lana aintzatetsi eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboak saihesteko.

2. Soilik salbuespenezko kasuetan, eta erantzukizun politikoa duten pertsonen onetsitako eta zioak emanda dituen txostenaren bidez justifikatu ahal izango da arestian zehazturiko betebeharrak bat ez betetzea.

24. artikulua. *Ikerketa eta estatistiken esleipena.*

Udal-ikerketa eta estatistikak zerbitzu-kontratuen bidez egiten direnean, enpresa esleipendunak aurreko artikuluan jasotako eginkizunak betetzeko konpromisoa hartu beharko du.

IX. KAPITULUA *Genero-ikuspegidun aurrekontuak*

25. artikulua. *Xedapen Orokorra.*

1. Zarauzko Udalak Ordenantza honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak gauzatzeko, eta oro har, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko baliabide ekonomikoak bere aurrekontuetan esleitu eta zehaztuko ditu urtero.

2. Halaber, diru-sarrera eta gastuen politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzean, kontuan hartuko ditu emakume eta gizonen baldintza, egoera eta beharrak. Horretarako, hausnarketa eta analisisa bultzatuko ditu, genero-ikuspegia txertatua duten aurrekontuak egiteko ekimenak martxan jarriko ditu, edo ekimen horiek sendotu.

X. KAPITULUA *Barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa*

26. artikulua. *Xedapen Orokorrak.*

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 26. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe, Zarauzko Udalak ez du hizkera eta irudi sexistarik erabiliko edozein informazio, komunikazio, idatzizko dokumentu, ikonografia eta euskarri ekoiztean eta kudeatzean, zuzenean edo pertsona fisiko edo juridiko edo erakundeen bitartez ekoiztuz.

2. Emakumeek bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikoaren hainbat eremutan eta gizarte-rol eta egoera guztietako edozein eremutan duten presentzia ere islatuko du Zarauzko Udalak.

3. Gainera, Zarauzko Udalak sexu baten edo bestearen gehiagotasun edo gutxiagotasunaren ideian oinarrituriko aurreiritziak, jardunak eta hitzezko adierazpenak eta irudiak ekidin eta galaraziko ditu, edo emakumeen irudi anakronikoa ematen duten emakumeen eta gizonen rol estereotipatuak.

4. Emakumeen eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa berdinak direla bermatuko du Zarauzko Udalak idatzizko, irudi bidezko eta ahozko informazioan, ikonografian, publizitatean eta barneko eta kanpoko komunikazioan. Gainera, arreta berezia eskainiko dio udal-ordezkarri politikoen jardunari, eta era berezian bultzatuko du gizonen eta emakumeen modu parekatuan ordezka dezatela Udala bere komunikazio-jardueretan, hala nola, prentsaurrekoetan, sari-banakaketetan, epaimahaietan, etab.

5. Zarauzko Udalak gizartearen eta erakundeen gaitzespena hedatuko du indarkeria matxistaren adierazpen kulturalen eta sinbolikoen aurrean.

6. Udalaren informazioaren, komunikazioaren eta ikonografiaren erabilera ez-sexistatzen edo estereotipo sexistatzen hartu behar dena zedarritzeari dagokionez, Parekidetasun Departamentuak aholkuak emango dizkie Zarauzko Udalaren teknikariei eta politikariei.

7. Informazio, komunikazio eta ikonografia ez-sexista sustatzeko eta jokabide eta jokaera estereotipatuak ekiditeko asmoz, Zarauzko Parekidetasun Departamentuak bultzatuta, Udalak kontzientziatorako kanpainak egin, prestakuntza-ikastaroak sustatu eta aholkuak emango dizkie eskaera egiten duten udal-erakunde eta elkarte guztiei.

8. Herritarrek eskubidea dute Udalari idatzizko, ahozko eta irudi bidezko komunikazio inklusibo eta ez baztertzailerak erabiltzea eskatzeko, gaztelaniaz nahiz euskaraz. Ildo horretan, informazio, komunikazio eta ikonografia ez baztertzailerak erabili beharko du administrazioak, ahoz, idatziz nahiz irudi bidez.

9. Enpresa esleipendunak informazio, komunikazio eta ikonografia ez-sexista nahitaz erabili beharra ezarri beharko da kontratazio-pleguetan eta edozein kontratu-motatan edota lankidetzatza-hitzarmenetan.

10. Ez da komunikazio sexistarik erabiliko Zarauzko Udaleko sailen arteko informazio, komunikazio, ikonografia eta eginiko edozein komunikazio-euskarritan, edo beste herri-administrazio batzuekin eginikoetan.

11. Ez da hizkera edota irudi estereotipatu sexistarik erabiliko Udalaren edozein osagaitan. Adibide gisa: bandoak, seinaleak, agiriak, ereduak, errotulazioa, zigiluak, uniformeak, web orria, intraneta, plakak, argitalpenak, zirkularrak, iragarkiak, hitzarmen kolektiboak, besteak beste.

XI. KAPITULUA

Udaleko araudian eta jardueran generoak duen eragina

27. artikulua. *Definizioa eta objektua.*

1. Ordenantza honen ondorioetarako, edozein udal-jarduera edo araudiren aurretiazko edo ondorengo ebaluazioa da genero-eraginari buruzko ebaluazioa, jarduera horrek emakumeen eta gizonen berdintasunean edo desberdintasunean dituen benetako ondorioak edo balizkoak zein diren jakiteko egina.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 19.2. artikuluan ezarri denari kalterik egin gabe, eta aipaturiko lege horren 18.2. artikuluan xedatu denaren itzalpean, dagokion departamentu sustatzaileak genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharko du tokiko arauen proiektu guztietan: ordenantzetan, erregelamenduetan, hirigintza- eta aurrekontu-arauetan. Hala ere, arau-proiektu hauek salbuetsita daude, baldin eta alde aurretik Parekidetasun Departamentuak oniritzia ematen badu:

- a) Genero-ikuspegitik garrantzirik ez daukaten arau-proiektuak.
- b) Funtsean antolaketa helburu duten arau-proiektuak.
- c) Jada indarrean dauden arauak bategitea helburu duten arau-proiektuak.
- d) Jada indarrean dauden arauak aldatzea helburu duten arau-proiektuak.

Administrazio-egintzen proposamenei dagokienez, soilik enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei buruzko proposamenetan egin behar da.

Ez da ebaluaziorik egingo hauen inguruko proposamenetan:

- Planak, programak edo politika publikoak adierazteko beste tresna batzuk.
- Edozein laguntza publikoren deialdiak (diru-laguntzak, bekak, sariak...), jarraibide hauen ondorioetarako arau-xedapen orokorrak ez direnak, irauteko asmorik gabekoak izateagatik eta denbora epe zehatz batean berez amaitzeagatik.
- Zerbitzu-komisioak eta lanpostuen balorazio-prozedurak ebazten dituzten egintzak.

28. artikulua. *Txostena egiteko gidalerroak.*

1. Zarauzko Udalak genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostenak egiteko gidalerroak izan arte, otsailaren 14ko 5/2007 Ebazpenaren eranskineko gidalerroak baliatuko ditu biderapen gisa.

2. Zarauzko Udalak beti bat egingo du gaian eskudunak diren erakundeek genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioaren inguruan proposatzen dituzten irizpide zein jarraibideekin, etorkizunean egin daitezkeen aldaketak edo moldaketak ontzat emanez.

3. Kasuan kasuko administrazio-egintza edo ordenantza egiten duen erakunde, zerbitzu edo sailaren erantzukizuna izango da genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena egitea.

4. Zarauzko Udalak genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio-txostenak egiteko ardura duten udal-teknikarien prestakuntza espezializatua bultzatuko du.

°XII. KAPITULUA

Berdintasuna enpleguan eta Udaleko langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea

29. artikulua. *Xedapen Orokorra.*

1. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa bermatuko du lanpostuen definizioan, sarbidean, sailkapen profesionalean, promozioan, prestakuntzan, lan-osasunean, ordainsarrietan eta lan-eskubideetan, lan-baldintza duin eta ez-baztertzailak bermatuz.

2. Aurreko atalean aurreikusitako eskubideak gauzatzeko, lan-esparruan Zarauzko Udalak ondorengo neurriak aplikatuko ditu:

- a) Lan politika berraztertuko du, genero-ikuspegiaren arauz.
- b) Beharrezko neurriak hartuko ditu, langileen kudeaketan berdintasun-printzipioa bermatzeko.
- c) Langileen lan-eskubideak berdintasunaren ikuspegitik hobetu eta erabiltzea bultzatuko du.

30. artikulua. *Sarbidea eta hautaketa.*

Hautapen-prozesuetan berdintasun-printzipioa bermatu ahal izateko, eta langile berriak sartzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaikuntza bermatzeko, Zarauzko Udalak neurri hauek hartuko ditu:

- a) Berdintasunari buruzko edukiak ezartzea ikasgai-zerrendetan, bai izaera orokorrekoak, bai lortu nahi den lanpostuaren esparrukoak ere.
- b) Bereizketa horizontala eta bertikala ezabatzeko neurri zuzentzaileak hartzea, bi sexuen ordezkartza orekatua ez dagoen eremuetan.
- c) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko aditu bat ezartzea berdintasunerako teknikarien hautapen-prozesuetako epaimahaietan.

31. artikulua. *Sustapena.*

Zarauzko Udalak ibilbide profesionalean zeharkako bereizkeria ekiditeko mekanismoak ezarriko ditu beren barne-sustapen prozesuetan, bai bereizketa bertikalean, bai bereizketa horizontalean.

32. artikulua. *Prestakuntza.*

Zarauzko Udalak prestakuntza-planak diseinatuko ditu beren langileentzat emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan; eta plan horiek elementu hauek izango dituzte gutxienez:

- a) Berariazko prestakuntza-ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan, bai oinarritzko izaera orokorrekoak, bai izaera bereziago eta espezializatuagoak.
- b) Prestakuntza-planetan zehaztutako gainerako prestakuntza-ekintzetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko edukiak ezarriko dira, bereziki esparru hauetan: komunikazioan, kudeaketaren hobekuntzan, harremanetarako eta zuzendaritzarako gaitasunetan, eta osasunean zein lan-arriskuen prebentzioan, baita kontratazio-, diru-laguntza eta administrazio-prozeduran ere.
- c) Emakumeek eta gizonen, berdintasuneko baldintzetan, prestakuntza bermatzeko beharrezko neurriak ezartzea.

33. artikulua. *Ordainsariak.*

Orain arte egin bezala, etorkizunean ere Zarauzko Udalak beren langileen arteko soldata-arrailak atzemango ditu, eta eskuragarri dituen neurri guztiak hartuko ditu genero-okertasunak ezabatzeko eta berdintasuneko politika bermatzeko, bai lanpostuen balorazioan, bai ordainsarien politikan.

34. artikulua. *Lan-segurtasuna eta osasuna.*

Lan-segurtasunari eta osasunari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa burutzeko, Zarauzko Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu helburu hauek lortzeko:

- a) Genero-bereizketak aztertzea lan-baldintzetan, lan-arrisku psikosozialekiko esposizioan, higiene zein ergonomia lan-arriskuekiko esposizioan, eta, horrez gain, prebentzio-mekanismoak ezartzea.

b) Langileen lan-etenaldien eragina aztertzea, betetzen den lanpostua kontuan hartuta. Era horretan, lanak sortzen dituen kalteak pertsonen sexura lotuta azaltzen diren egoera posibleak saihestuko dira.

c) Generoaren ikuspegitik, laneko gaixotasunei buruzko ikerketak bultzatzea.

d) Emakume langileen ugalketan, haurdunaldian eta edoskitzean osasunaren prebentzioa bermatzea.

e) Zaintza-lanetan eta lan-bizitza zein bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko orduan, gizonen erantzunkidetasuna sustatzea.

f) Emakume langileei berri ematea 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoak, xedatutako eskubideei buruz.

g) Indarkeria matxistaren edozein adierazpen saihestea lan inguruan, eta horretarako, lan-segurtasunerako protokoloa genero-ikuspegitik berrikustea eta beharrezko hobekuntza-neurriak aplikatzea, indarkeria matxistaren atala barnebiltzeko.

h) Langileei egokitutako lan-segurtasunerako protokoloaren berri ematea.

i) Langileei lan-arriskuen prebentzioan generoaren ikuspegitik prestakuntza ematea.

35. artikulua. *Lanaren eta familiaren bateragarritasuna eta erantzukizunen partekatzea.*

Zarauzko Udalak beharrezko mekanismoak ezarriko ditu neurri hauek garatzeko:

a) Langileen lan-bizitza eta bizitza pertsonal zein profesionala bateratzen laguntzeko neurriak, betiere emakumeen jabekuntzarako ikuspegitik, eta aldi berean zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzen dutenak.

b) Antolakuntzan aldaketa-prozesuak sustatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta bizitzaren zaintzari arreta emateko.

c) Berariazko jarduera-plan bat, zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko.

d) Zerbitzuko langileen amatasun- eta aitatasun-baimen besterenezinak parekatzeko ekintzak bultzatzeko neurriak.

e) Langileentzako ordutegi- eta espazio-malgutasuna bultzatzeko neurriak, betiere emakumeen jabekuntza ikuspegi batez, eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko.

f) Zarauzko enpresen sentsibilizazioa bultzatzeko neurriak lana, bizitza pertsonala eta familia bizitza bateratzeko eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasunaren eta berdintasunaren alde.

XIII. KAPITULUA *Lehiaketa eta kontratu publikoak*

36. artikulua. *Xedapen Orokorra.*

1. Zarauzko Udalak, bere kontratazio publikoan, genero-ikuspegia sartu beharko du nahitaez, genero-zeharkakotasuna modu eraldatzailean garatzearen.

2. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak sartuko ditu kontratazio guztien baldintza-pleguetan, administrazio-klausuletan eta preskripzio teknikoetan, hain zuzen ere gobernu, zuzendaritza edo teknikaren arloko erantzukizuna izanik.

3. Zarauzko Udaleko sail guzti-guztiek genero-ikuspegia nahitaez sartu behar dute genero-ikuspegia xedearen ezaugarri tekniko den kontratuetan, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko kontratuko klausulen edukia kontratua emateko ezaugarrietarako egokia denean ere.

4. Beste neurri batzuei kalterik egin gabe eta indarrean dagoen berdintasunerako legediaren arabera, kontratuaren esleipendun izendaturiko pertsona juridikoak (horren estatus juridikoa edozein dela ere) nahitaez bermatu behar du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, arreta berezia ezarriko delarik soldata-bereizkerian.

5. Parekidetasun Departamentuak, adituen edo erakunde espezializatuen laguntza duela, aholkularitza emango die kontratazioa egiteko ardura duten udal-teknikariei, genero-ikuspegia sartzeko kontuan hartu beharreko

neurriak espediente bakoitzean aplikatzean, eta departamentu bakoitzak klausulak betetzen direla egiaztatu eta ebaluatuko du.

XIV. KAPITULUA *Diru-laguntzak ematea*

37. artikulua. *Xedapen Orokorra.*

Zarauzko Udalak nahitaez sartu beharko du genero-ikuspegia diru-laguntzak ematean, genero-zeharkakotasunaren estrategia garatzeko.

38. artikulua. *Debekua.*

Zarauzko Udalak ez die inolako diru-laguntzarik emango honako hauei:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatik bereizita ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan-edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- b) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- c) Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituzten erakunde edo enpresei.
- d) Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexu-bereizkeria egiten duten elkarteei.
- e) Sexua dela eta bereizkeria egiten duten jardueri.

39. artikulua. *Baldintzak.*

Zarauzko Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen beharkizunen artean, honako hauek sartu ahal izango dira:

- a) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia sustatzea.
- b) Diruz laguntzen den proiektuak edo jarduerak genero-ikuspegia edukitzea bere diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan.
- c) Diru-laguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea.

XV. KAPITULUA *Hedabideak*

40. artikulua. *Diru-laguntzak.*

1. Zarauzko Udalak ez die hedabide sozialei inolako diru-laguntzarik emango, hedabide horiek beren komunikazio-lanean emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuarekin konpromisoa hartu ezean.

2. Hedabideek hartutako konpromisoak, gutxienez, alderdi hauei eragingo die:

- a) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
- b) Emakumeek hedabidean parte-hartze aktiboa izango dutela bermatzea, presentzia orekatua, eta bi sexuen irudi anitza ematea, hots, bizitzako alor desberdinetan betetzen dituzten eginkizunei buruzko estereotipo sexista eta edertasun-ereduak baztertuz eta haur eta gazteei zuzenduriko edukiak bereziki zainduz.
- c) Emakumeek bultzaturiko edo haiei zuzenduriko jarduera politiko, sozial, kirol- eta kultur-ekintzak hedatuko direla bermatzea, baita emakumeen ahalduntzea bultzatzen dutenak ere, gizonetikiko berdintasun-baldintzetan.

d) Ahal den guztietan, udalerriko emakumei –bakarka zein taldean– zuzendutako berariazko parte-hartze espazioak sortzea (iritzi-zutabeak, eta abar), haien iritziek, bizipenek eta errealitatearen interpretazioek gizartean oihartzuna izan dezaten.

XVI. KAPITULUA

Gizarte-zerbitzuak, zainketak eta ardura partekatua

41. artikulua. *Xedapen Orokorra.*

1. Udalak behar diren laguntza eta zerbitzuak emango dizkie udalerriko emakume eta gizonei, sexuaren inguruko desberdintasunak eta genero-harremanen ondoriozko aldeak kontuan hartuta. Hala, baliabideak emakume eta gizonen egoera desberdinetara egokituko dira eta, bereziki, guraso bakarreko familietara eta egora ahulean dauden bestelako taldeetara.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako beharrak zein diren zehazteko, diagnostiko egokituak eta zehatzak egingo dira.

3. Zainketa-lanak udalerriko bizitza ekonomiko eta sozialean eta lotura sozialak sortzeko orduan duen garrantziagatik, Udalak lehentasuna emango dio diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak emateari, adin txikiko pertsonak eta mendekotasuna duten bestelakoak zaintzeko lanak egiteko bada, eta, edozein kasutan, eginkizun horietan emakumeen eta gizonen ardura partekatua bultzatuko du.

42. artikulua. *Ekintzak.*

Aurreko atalean aipatutako prestazioak bermatzeko, Udal Gobernuak, beharren diagnostikoaren arabera, ardura hauexek izango ditu:

a) Ikuspegi feministak oinarri gisa hartuta, eztabaidak egin eta proposamenak osatzea, Zarautzen zaintza duinen eredu bat sustatzeko.

b) Zarauzko Udalaren esku-hartzeek inolako estereotiporik ez edukitzea, zaintza-lanak nork egin behar dituen eta nork egin ditzakeenaren inguruan.

c) Zaintza-lanak «emakume zintzoen» berezko gaitasun eta zeregin gisa identifikatzen dituen ideia hausten laguntzea, baita «gizonezko langile arruntaren» irudia, zaintza-lanen inguruan erantzukizun eta premiarik gabekoa ere.

d) Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzea, eta beharrezko neurriak hartzea 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 49. artikuluan xedatutakoak garatzen duten arauetan jaso dadin lan- eta familia-bizitza bateratzeko orduan gizonen erantzunkidetasuna.

e) Pertsona guztien zaintzak jasotzeko eskubidea sustatzea, zaintzak jasotzen dituzten pertsonen autonomia sustatzen dela ziurtatuz, eta neurriak hartuz emakumeen gain eratutako familia barruko zaintza-ereduak birsortzen ez direla bermatzeko.

f) Zaintzaile ez-profesionalek zaintza-lanak egiteko orduan dituzten baldintzak erraztu eta duintzea, familiako zaintzaileen ongizatea eta eskaerak kontuan harturik, eta etxeetan zaintza-lanak modu bidezkoagoan banatzen direla sustatuz.

XVII. KAPITULUA

Hezkidetzak eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea

43. artikulua. *Hezkidetzak.*

1. Zarauzko Udala, Parekidetasun Departamentuaren bitartez, harremanetan jarriko da pertsonen hezkuntzan, trebakuntzan eta sozializazioan diharduten elkarteekin, bereziki garrantzizkotzat jotzen dituelako berdintasunezko balio, eredu eta erreferenteak sustatzeko eta bultzatzeko, edo hezkidetzak lantzen dutelako.

2. Zarauzko Udalaren lehentasunezko helburua izango da eta, zehazki, Parekidetasun Departamentuarena eta hura zuzenduko duten politikariena eta teknikariena, etengabeko harreman onak izatea tokiko eskolako komunitateko ordezkariarekin (irakasleak, gurasoak, ikasleak, etab.), beharrak hautemateko eta haiei laguntzeko hezkidetzako eskolaren bidean.

3. Zarauzko Udalak lankidetzarako ekimenak abiarazten jarraituko du eskolekin eta hezkuntzako erakundeekin eta eragileekin, berdintasunarekin lotutako balioak sustatzeko, eskolari berariazko heziketa-eskaintza

emanez, hala nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko heziketa-programak hezkuntza-maila guztietan, edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasunean hezteko programak hezkuntza-maila guztietan.

44. artikulua. *Sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea.*

1. Zarauzko Udalak sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaineko aniztasuna aitortzen du. Halaber, pertsonen arteko harremanak ez heterosexuak izan daitezkeela eta bestelako familia-ereduak sor daitezkeela aitortzen du. Horregatik, udalerriko herritar guztiak heterosexuak direla suposatuta behar ez dela ere aitortzen du, baita nor bere genero-identitatea bere gorputzaz askatasunez kudeatu dezakeela ere. Azkenik, lesbianek, transexualek, queerrek, gayek eta bisexualek berariazko diskriminazioa bizi dutela ere adierazten du, heteroarauaren parametroetatik kanpo daudelako.

2. Aurreko atalean adierazitakoa dela eta, Zarauzko Udalak honako neurri hauek bultzatuko ditu:

a) Herritarrak maitasun- eta sexu-harremanetan eta genero-identitatean egon beharreko askatasunaz eta aniztasunaz sentsibilizatzeko kanpainak edo bestelakoak egitea.

b) LGTBQ taldeak jasaten duen diskriminazioaren kontrako berariazko tresnak eta neurriak sustatzea.

XVIII. KAPITULUA

Tokiko garapen zuzena eta parte-hartze aktiboa

45. artikulua. *Jarduera ekonomikoa eta enplegua.*

1. Udalak konpromisoa hartzen du emakumeek udalerriko garapenean betetzen duten eginkizuna ezagutzera emateko, ikusgarri egiteko, hedatzeko, eta eginkizun horri garrantzia emateko; ez du gainera gaur bakarrik egingo, udalerraren historia osoan zehar baizik. Horretarako, Parekidetasun Departamentuak ekintzak eta programak bultzatuko ditu, hainbat ikuspegitik emakumeek udalerriko gizartearen, ekonomian eta lan-esparruan zer-nolako papera betetzen duten ikertu eta diagnostikatzeko.

2. Halaber, harreman etengabe eta erraza izango du udalerriko enpresa eta ekonomia-jarduera garatzen laguntzen duten udalerriko eragileekin emakumeek alor horretan dituzten baldintzak hobetzeko.

3. Udalak emakumeak lan-munduan txertatzeko jarduera edo programak bultzatuko ditu, eta haiek diseinatzen lagunduko du (besteak beste, trebakuntza, informazioa, orientazioa eta ekintzailtza babesten), eta programa horietan gizartetik baztertuta bizi diren emakumeei arreta berezia eskainiko zaie.

4. Udalak, udalerriko ikastetxeekin eta hezkuntza-entitateekin dituen harremanetan, ekintzak eta programak bultzatuko ditu neska-mutilak beren sexuari lotuta egon ohi diren ikasketak hautatzera bultzatzen dituzten eta indarrean dauden genero-estereotipoak hautsiko dituen orientazio akademikoa ezarri ahal izateko; izan ere, estereotipo horiek desabantaila-egoeran egonazaten dituzte emakumeak lan-merkatuan eta oro har, ekonomia-eremuan.

XIX. KAPITULUA

Giro ludikoa, osasuntsua eta sortzailea, berdintasunean

46. artikulua. *Kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak.*

1. Zarauzko Udalak kirolaren arloko eragileekin lankidetzak bultzatuko du, emakumeen kirola sustatzeko konpromisoa lortzeari begira, edozein modalitatetan, tipologiatan (amateurra, «federatua», etab.) edota adin-taldetan.

2. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du, ez soilik kirolean, baizik eta kirolarekin lotutako kudeaketaren eta erabakien gaineko eremuetan ere bai (klubak, elkarteak, etab.).

3. Zarauzko Udalak askotariko kirol-eskaintza bermatuko du, eta emakumeak eta gizonak sexuen arabera bereizitako ustezko gaitasunetan eta ezaugarrietan oinarrituriko kirol-jardunetan sailkatzen dituzten estereotipoak hausteko jolas-kirol jarduerak izango ditu. Halaber, kirolaren dibertsifikazioaren alde lan egitera bultzatuko ditu tokiko gainerako kirol-eragileak.

4. Zarauzko Udalak adin guztietako emakumeen partaidetza bultzatuko du, baina batez ere gazteenak, udalerrian egun dauden kirol-modalitateetan eta etorkizunean izan litezkeen modalitateetan.

5. Zarauzko Udalak banakako kirolariei edo kirol-klubei emandako sariak, diru-sariak, aipameneak edota laguntzek genero-ikuspegia hartuko dute kontuan, eta bereziki baloratuko da Zarauzko kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde izandako ibilbidea.

6. Zarauzko Udalak ez ditu baimenduko edota lagunduko (diruz zein bestelako baliabidez) emakumeen partaidetza bermatzen edota sustatzen ez duten kirol-jarduerak.

7. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia sartuko du kirolarekin zerikusia duten araudietan, baita kirol-esparruko diru-laguntzetan eta instalazioetako zerbitzuen kontratazioan ere. Horrela, onuradunek edo esleipen-hartzaileek emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bermatu beharko dute, bai antolaketan, bai zerbitzua ematen dutenean; barne zein kanpoko informazioa eta komunikazioa kudeatzen dutenean; eta generoak baliabide ekonomikoen esleipenean duen eragina aztertzen laguntzen duen informazioa eman beharko dute.

47. artikulua. *Osasuna.*

1. Udalak konpromisoa hartzen du udalerriko emakumeek genero-sistemak ezartzen dizkien eginkizun eta betebeharren ondorioz nozitzen dituzten osasun-arazoak ikertu eta ikusgarri egiteko (funtsean, etxeko lanekin eta pertsonak zaintzarekin lotutakoak).

2. Udalak ekintzak eta programak bultzatuko ditu udalerriko emakumei beren osasuneko parte aktibo eta protagonista bihurtzen laguntzeko, eta horretarako, haien ongizatea lortzera bideratutako proposamenak prestatzen parte hartuko du.

3. Udalak udalerriko gazteen sexu-heziketara bideratutako ekintzak eta programak bultzatuko ditu, gazteek sexualitate osasuntsua izan dezaten, sexualitate askea, estereotipo eta aurreiritzirik gabea, eta norberak bere gorputz eta sexualitatearen jabe eta arduradun bakar gisa hartutako erabakien araberakoa.

4. Norberarentzako osasungarriak eta inguruarekiko errespetuzkoak diren jokabide, arau eta ohiturak sortuko dituzten eredu eta erreferenteak hedatuko ditu Zarauzko Udalak.

48. artikulua. *Kultura.*

1. Zarauzko Udalak genero-ikuspegitik berrikusiko du tokiko kultur-politika, eta neurri egokiak hartuko ditu emakumeek kulturaren arloan duten partaidetzaren inguruan hautemandako balizko eskasiak pixkanaka konpontzeko (kulturaren sorkuntzan, erakusketan edo hedapenean, edo kulturaren kontsumoan).

2. Halaber, egungo joera orekatzeari begira, Zarauzko Udalak neurriak hartuko ditu emakumeek arte- eta sorkuntza-ekoizpenean parte har dezaten bultzatzeko. Kultur-jardueren kontsumoan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua sustatuko da.

3. Zarauzko Udalak bere kultur-politikaren eremuan programaturiko edukietan mezu edota ikonografia sexista galaraziko du.

4. Zarauzko Udalak emakumeek kulturari eta arte-jarduerari eginiko ekarpena ikusarazteko neurriak hartuko ditu.

5. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia sartuko du kultur-esparruko diru-laguntzetan.

49. artikulua. *Jaiak.*

1. Udalak toki-mailako jai-gunearen eta denboraren balio sinbolikoa aitortzen du, eta horrexegatik hitzartzen du gune horrek emakumeenganako izan dezakeen diskriminazioaren gaineko diagnostikoa egitea eta diskriminaziozko ezaugarriak ezagutzea eta aitortzea. Jai-gunearen eta denboraren osagai guztiak berdintasun-irizpideei hertsiki lotzen zaizkiela ere zainduko du Udalak.

2. Zarauzko Udala jaietako ekintzak eta bertan sortutako giroa udalerriko pertsona guztiak jaiak gozatzeko giroa sortzeko lagungarriak izateaz arduratuko da, sexua, adina, jatorria, hezkuntza-maila, egoera ekonomikoa edo sexu-aukera dela-eta pertsona batek ere ez dezan mugatua izan jaiak gozatzeko eta ekintza guztietan parte hartzeko duen eskubidea.

3. Zarauzko Udalak, herriko jaiak antolatzen dituzten elkarte eta eragileekin batera, berdintasuneko jaien ildoan egingo du lan, eta herritar guztientzako jai paritarioagoak bilakatuko ditu.

4. Zarauzko Udalak ez du baimenduko edota lagunduko (diruz zein bestelako baliabidez) eduki sexista duen edozein jarduera, ekitaldi, ikuskizun edo barraka.

XX. KAPITULUA
Guzti-guztiok bizitzeko moduko ingurunea, iraunkorra eta segurua

50. artikulua. *Hiri-plangintza eta tokikoa.*

1. Berdintasunerako politikek eskatzen dituzten bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatuko ditu Zarauzko Udalak, lurraldearen antolamenduaren eta hiri-plangintzen bidez, funtzio anitzeko hirigintza sustatuz (hirigintza zonifikatua eta funtzio bakarrekoa alde batera utzita), irisgarritasuna eta barrera arkitektonikoak desagertzea sustatuz, bateragarritasuna errazten duten zerbitzuen eta ekipamenduen kokapen estrategikoa ziurtatuz edo ekipamenduen eta zerbitzuen ordutegien eskaintza erantzunkidetasunaren beharretara egokituz.

2. Zarauzko Udalak herritarren partaidetza bultzatzeko neurri egokiak hartzea hitzartzen du hiri-plangintza berrikusteko prozesu guztietan, eta horretarako, emakumeen eta emakume-taldeen partaidetza ziurtatuko du prozesu horietan. Izan ere, partaidetza paritarioa lortzea da xedea.

3. Era berean, bere egin du parte hartzeko prozesu-mota horiek burutzeko ardua duen pertsonala gaitzeko, sentibilizatzeko edota aholkuak emateko eginkizuna, Parekidetasun Departamentuaren edo berdintasunean adituak diren kanpoko pertsonen bitartez.

4. Zarauzko Udalak, hirigintzaren antolamenduaren arloko gai guztiei dagokienez, artikulua honetan adierazitako partaidetza bermatuko du, baita emakumeak ikusaraztea eta horien segurtasuna ere hirigintza antolatzeke planetan eta programetan.

5. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia hirigintzako plangintzan txertatzeari buruzko gogoeta eta azterketarako guneak bultzatzea hitzartzen du.

6. Era berean, hiri-azpiegituren diseinua eta funtzionamendua aztertuko du, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna bultzatu eta errazteko beharrezko egokitzapenak eginez

51. artikulua. *Etxebizitza.*

1. Udalak aitortzen du kalitatezko etxe duin bat edukitzea pertsonaren eta bere familiaren ongizaterako funtsezko behar batean oinarritutako eskubidea dela. Horregatik, aitortzen du eskubide hori modu berean gizon eta emakumeek eduki dezaten, kontuan hartu behar direla emakumeen behar eta zailtasunak, handiagoak eta bereziak baitira.

2. Gainera, gizon eta emakumeek etxebizitza edukitzeko eskubide berbera dutela aitortzen du, bai errentan hartuta, erosita edo jabetza lortzea ahalbidetzen duen beste modu baten bitartez.

3. Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea berdintasunez gauzatu ahal izateko, Udala Gobernuak arreta berezia jarriko du egoera ahulean dauden emakumeek beren behar espezifikoenatik izan dezaketen etxebizitza-eskastasun egoeretan.

52. artikulua. *Mugikortasuna eta garraioa.*

1. Mugikortasuna eta garraiobideak eskuratzea funtsezko baldintza da emakume eta gizon askok beren eskubideak erabiltzeko eta lanak eta jarduerak egiteko, betiere enplegua, hezkuntza, kultura eta oinarritzko zerbitzuak barne badira.

2. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia mugikortasuna edota tokiko garraioa hobetzeko diagnostiko, ekintza, programa edo plangintza orotan sartzea hitzartzen du.

3. Zarauzko Udalak bere kargura duen garraio-zerbitzu publikoaren, funtzionamenduan, arautegian eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzeko konpromisoa hartzen du. Konpromiso horrek berekin ekar litzake, besteak beste, ibilbideak, ordutegiak eta maiztasunak aldatzeko neurriak, erabilitako ibilgailuetan aldaketak egitea (mugikortasun urriko pertsonak ibilgailuetan sartzea murrizten duen guztia kentzea) edo ordutegiei eta ibilbideei buruzko informazioa hobeto ezagutaraztea.

4. Zehazki, garraio publikoak pertsonen ongizatea bermatzeko eguneroko ezinbesteko eginkizunen ondoriozko beharrak lehenetsunez betetzen dituela zainduko du Zarauzko Udalak, halako moldez non garraio publikoaren funtzionamendua ez baita egongo soilik lotuta ekoizpen-lanen ondoriozko beharrekin (ordaindutako lana), baizik eta familiak zaintzeko eta hornitzeko eginkizunekin ere bai.

5. Garraio publikoa sustatzeko, gizonentzat zuzendutako berariazko ekintzak edota programak burutuko ditu, zeren eta, gaur egun eurak baitira ibilgailu pribatuaren erabiltzaile nagusiak.

6. Zarauzko Udalak emakumeen partaidetza handia bultzatu eta ziurtatuko du garraio publikoarekin lotutako diseinuaren, plangintzaren, kudeaketaren eta erabakien arloetan, zeren eta, gaur egun emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak.

7. Zarauzko Udalak kontuan hartuko du udalerrian garatzen den zirkulazio-hezkuntzako ekintza edo programa orotan, errepideetako ezbeharrek gizona koei eragiten dietela nagusiki eta, horrenbestez, mezu eta gomendio bereziak bultzatuko dituzte haietzat (bereziki gazteei zuzenduta).

8. Gainera, haurren autonomia garatzeko eta haurrak zaintzeko ardura duten pertsonen bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak abiarazteko lana ere erraztuko du, hainbat ekimen sustatuz hala nola eskola-bideen trazatua udalerrian; ibilbide malguak eta ibilbide errazak, haurrak oinez joateko modukoak, hainbat eragileen parte-hartzeari esker (eskola, irakasleak, familiak, udal-administrazioa, auzuneko establezimenduak, elkarteak, etab.) babestuta dauden irudipena izango duten ingurunean.

53. artikulua. *Gune seguruak.*

1. Zarauzko Udalak gune seguruak bultzatuko ditu herrian.

2. Aurrekoa betetzeko, Zarauzko Udalean berdintasun-, hirigintza-, herrilan- eta hiri-segurtasun gaietako ardura duten udal-arloek neurri hauek hartuko dituzte:

a) Segurtasuna bermatzeko ekintzak eta neurriak bultzatu, segurtasunik gabeko guneak ezabatzeko neurriak hartu eta gutxitu Zarauzko emakumeek izan dezaketen sentipena segurtasun eskasari buruz.

b) Lankidetzan arituz urtean zehar Zarauzko jai-ekitaldiak antolatzen dituzten gainerako erakunde eta elkarteekin, eraso sexistak herritik desagerrarazteko neurriak hartuko dira, emakumeek askatasun osoz goza ditzaten beren aisialdia eta herriko jaiak.

54. artikulua. *Ingurumena.*

1. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia ingurumenaren hobekuntzarekin lotutako politika publikoetan txertatzea bultzatuko du. Hartara, emakumeen eta gizonen bizimoduarekin lotutako berriarazo beharrak aintzat hartuko ditu ingurumenaren gaineko politiken eta zerbitzuen garapenean.

2. Zarauzko Udalean ingurumen-eskumenak egokitzen zaizkion arloak, bakarka edo beste arloekin batera, ondoko neurri hauek hartuko ditu:

a) Gizon eta emakumeen bizimoduei lotutako beharrezkoak arlotik bultzatzen diren politikan eta zerbitzuetan sartzea, partaidetzan oinarritutako demokrazia bultzatuz eta informazioa iristeko bidea hobetuz.

b) Zarauzko auzotarren osasun- eta bizi-kalitatea hobetzeko eta iraunkortasuna garatzeko, genero-ikuspegidun iraunkortasun-printzipioak sartzea. Horretarako, iraunkortasuna kudeatu eta ebaluatzeko programa eta estrategia eraginkorrek garatuko dira.

c) Herritarrak sentsibilizatzea zein garrantzitsua den kontsumo jasangarriaren jarraibideei eta bizimodu arduratsuei eustea, betiere kontuan hartuta emakume eta gizonen errealitatea ezberdina dela.

d) Ur eta energia kontsumoari eta etxebizitzetako hondakinak sortu eta kudeatzeari lotutako etxeko egitekoetan erantzunkidetasuna sustatzea.

e) Hirigintzaren plangintzak eta diseinuak duten eginkizun estrategikoa eta bateratzailea indartzea, betiere berdintasun- eta hirigintza-arloetako eskumenak dituzten udal-arloekin koordinatuta.

55. artikulua. *Senidetzeak eta nazioarteko lankidetzak.*

1. Udalak aitortzen du Europan eta nazioartean senidetu eta lankidetzan aritzeak balioa duela pertsona guztiak herritargor oso batera hurbiltzeko, eta pertsona eta eskualdeen arteko desberdintasunak ezabatzeko.

2. Europako eta nazioarteko beste toki batzuekin senidetu eta lankidetzan aritzeko, Udalak konpromiso hauexek hartzen ditu:

a) Lankidetzak-jardueretan genero-ikuspegia txertatuko du, hartara gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu eta desberdintasuneko harremanik ez finkatzeko.

b) Europako eta nazioarteko senidetze-harremanak eta kideak bizipenak eta gizon eta emakumeen berdintasunarekin lotutako ezagutzak trukatzeko plataforma gisa erabiliko ditu.

c) Emakumeek lankidetzaproiektuetan eta senidetze-harremanetan parte hartuko dutela bermatuko du.

56. artikulua. *Tokian tokiko oroimena.*

Udalak aitortzen du tokian tokiko oroimena nortasuna artikulatzen duen funtsezko elementua dela. Horregatik, kasuan kasu dagokion departamentuaren bitartez, emakumeek historian eta udalerraren garapenean egin duten lana ikusgai jarri eta aitortua izango dela ziurtatzeko ekimenak martxan jarriko ditu eta, berariaz, tokian tokiko oroimena gorde eta hedatzeko elementuetan emakumeak ere ager daitezzen bultzatuko du; hala nola, kaleetan, parkeetan, plazetan, eraikinetan, monumentuetan eta bestelako elementu sinbolikoetan, hiri-garapen berrietan, eta abar.

XXI. KAPITULUA
Emakumeen aurkako indarkeria

57. artikulua. *Definizioa.*

1. Ordenantza honen ondorioetarako, indarkeria matxista izango dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten pertsonen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinboliko mota guztiak, hala nola, transgreditu gabe ere, bere baitan botere-harremanak jasaten dituzten emakumeen kontrakoak. Indarkeria matxista terminoaren barruan indarkeria sexista dago, baina baita ere beste indarkeria mota batzuk: transfobia, lesbofobia eta homofobia.

2. Indarkeria sexista dira emakumeen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinboliko mota guztiak.

3. Indarkeria sexista eta gainerako indarkeria matxistak, identitate pertsonala osatzen duten intersekzio ezberdinen markoaren konplexutasunean ulertu beharrekoak dira: adina, jatorria, arraza, osasun fisikoa eta mentala, aniztasun funtzionala, etab.

4. Indarkeria sexista eta gainerako indarkeria matxistak esparru ezberdinetan eragiten dira (bikote-harremanetan, familian, lan-esparruan, eskolan, gune birtualetan) eta modu ezberdinetan (psikologikoan, ekonomikoan, fisikoan, sexuzkoan...). Indarkeria sexista eta gainerako indarkeria matxisten egiturazko funtzio ezberdinen arteko diferentziak direla eta, esparruak eta moduak parteka ditzaketen arren, euretako bakoitzak beren ezaugarri propioak ditu.

58. artikulua. *Jarduera-esparru orokorra eta neurrien egokitzapena.*

1. Indarkeria sexista borrokatzeko, Zarauzko Udalak bere eskumenen barruan bete egingo ditu ondoko legeetan aurreikusita dituen obligazioak: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VII. Kapituluan, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, eta Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan. Bestalde, eta hala badagokio, beste erakunde batzuekin lankidetzan, Zarauzko Udalak udalerrri mailara egokituko ditu emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko EAE mailan onartzen diren neurriak, horretarako behar diren erakunde arteko akordioak, protokoloak, programak eta planak gauzatzuz.

2. Orobat, eta balegokio, Zarauzko Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 43. artikuluan eta VII. Kapituluko 1. eta 2. ataletan, baita Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan ere, aurreikusten diren biktimen arreta eta babeserako, ikerketa-, prebentzio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriak udalerraren esparrura egokituko ditu.

3. Udal-politika publikoen diseinuak, departamentu guztietan eta bakoitzaren jarduera-esparruan, indarkeria matxistaren mota guztiak hartuko ditu kontuan, indarkeria hori zein espaziotan eta norik egiten duen eta horren aurkako erresistentzia motak ere.

59. artikulua. *Ikerkuntza.*

1. Zarauzko Udalak ikerketak eta azterketak bultzatuko ditu jakiteko nola gauzaten den emakumeen aurkako indarkeria Zarauzko herrian, zergatik dagoen, zenbat emakumeri eragiten dion eta nola desagerrarazi daitekeen.

2. Zarauzko Udalak orobat aztertuko du nola indartzen diren portaera matxistak, abian jartzeko portaera horiek zuzendu eta desagerrarazteko udal mailako politika publikoak. Zarauzko Udaleko Parekidetasun Departamentuak, eta komunikazioaren, haurtzararen, nerabezararen, kulturaren eta gazteriaren esparruetan eskumenak dituzten departamentuek edertasunaren eta harreman afektiboaren eredu patriarkalak modu kritikoa berrikustea bultzatuko dute, elementu horiek legitimatzen baitituzte indarkeria matxistaren egiturak eta sinboloak.

3. Zarauzko Udalak modu aktiboan lagunduko du eta parte hartuko du beste erakunde batzuek prestatzen dituzten ikerketetan, hala egiteko eskatzen bazaio, Zarauzko errealitateari buruzko informazioa emanez.

60. artikulua. *Prebentzioa eta sentsibilizazioa.*

1. Zarauzko Udalak berak bakarka nahiz beste erakunde batzuekin batera, kanpainak eta ekintzak egingo ditu Zarauzko herritarrak indarkeria sexistazkontzientziatzeko.

2. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen kolektiboaren zein emakume banakoen jabeakuntza indartuko du, eta hori guztia Zarauzko Udaleko beste udal-arlo batzuekin elkarlanean, batez ere gizarte- eta kultura-politiketako eginkizunak eta eskumenak esleitzen zaizkienekin eta beste instituzio publikoekin.

3. Indarkeria matxistako edozein agerpideren aurrean (eta ez soilik giza-hilketak edo askatasun sexualaren aurkako delituak direnean) Zarauzko Udalak erakundeak, elkarteak, dendak, toki-entitateak, hedabideak eta, oro har, herritarrak sentsibilizatu eta mobilizazioetara eta beren arbuioa publikoki erakustera bultzatuko ditu.

4. Halaber, gizonetzoei zuzendutako ekintzak ere bultzatuko ditu konpromiso irmoa har dezaten indarkeria sexistaren aurka eta jarrera arduratsua har dezaten portaera sexisten aurrean.

61. artikulua. *Trebakuntza.*

1. Zarauzko Udalak prestakuntza emango die bere langileei indarkeria sexistako gaietan, bereziki indarkeria hori pairatzen duten emakumeak zuzenean artatzen dituzten teknikariei, baita horien menpeko langileei ere. Orobat, prestakuntza hori bera bultzatuko du indarkeria sexista pairatzen duten beste sektore batzuetarako politikak gauzatzen dituzten udal-arloetan ere.

2. Zarauzko Udaleko arlo guztiek behar diren neurriak aplikatuko dituzte bermatzeko indarkeria sexistari buruzko prestakuntza berezitua hartzen dutela, bai udal-langileek, bai kasuan kasu interesgarriak baloratzen diren beste langile batzuk.

3. Parekidetasun Departamentuak prestakuntza-ekitaldiak sustatuko ditu Zarauzko erakunde eta elkarteentzat, bereziki emakumeei zuzenduak, irakasteko nola gauzatzen den indarkeria sexista, nola ezagutu daitekeen eta nola egin dakioken aurre.

4. Parekidetasun Departamentuak bultzatzen jarraituko du herriko ikastetxeetan ikasle eta irakasleentzako prestakuntza-saioak antola daitezela berdintasuna sustatzeko eta indarkeria sexista prebenitzeko, dela zuzenean, dela gai horrekin zerikusia duten beste erakunde eta entitateekin koordinaturik.

62. artikulua. *Baliabideak, arreta eta babesa.*

1. Zarauzko Udalak, Zarauzko udalerrian indarkeria matxistari arreta emateko beharrezko baliabideak eta zerbitzuak diseinatu eta garatuko direla bermatuko du. Gutxienez, harrera, deribazioa, arreta psikologikoa eta laguntza juridikoa eskaintzen dituzten zerbitzuak beteko ditu. Indarkeria sexista pairatzen duten emakumeen prekarizazio ekonomikoari aurre hartzeko eskura dauden prozesuak eta baliabideak indartuko ditu.

2. Zarauzko Udalak neurri hauek bultzatuko ditu bere eskumenen barruan:

a) Bermatuko du indarkeria sexista pairatzen ari diren emakumeek arreta osoa eta pertsonalizatua jasotzen dutela, indarkeria egoeretatik sortzen diren beharrian guztiei erantzuteko gisan, eta beren eskura jartzen direla kasu bakoitzeko inguruabar sozial edo pertsonalek eskatzen dituzten baliabide egokienak.

b) Berdintasuna bermatuko du eta ez du onartuko inolako bazterkeriarik ezein arrazoi dela medio, dela pertsonaren joera sexuala, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, aniztasun funtzionala, ezta beste ezein ezaugarri pertsonal nahi sozialengatik ere.

c) Behar diren neurriak hartuko ditu beren inguruabar pertsonal eta sozialen kausaz arreta integrala iristeko zailtasun gehiago dituzten biktimen eskubideak bete daitezen, bereziki aniztasun funtzionala duten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein izanik ere beren egoera administratiboa.

Lagundu egingo zaie indarkeria pairatzen duten emakumeei autonomia pertsonala lortzen eta bizimodu normaldua izaten.

d) Adingabeen interesen defentsa bermatuko da.

e) Bermatuko da azkar eta malgu arituko dela, kasuek eskatzen duten erantzuna ahalik eta azkarrena izan dadin.

f) Eginahalean saihestuko da bigarren mailako biktimizazioa, ahalik eta gehien gutxituz indarkeria sexista pairatutako emakumeek profesional eta erakundeekin dituzten harremanen ondorioz izan ditzaketen eragozpenak.

3. Zarauzko Udalean indarkeria matxistaren inguruko datu pertsonalak biltzen dituzten udal-arlo guztiek beren gain hartzen dute datuak jaso, informatu eta trataera-baimena lortu, irispidea kontrolatu eta goi-mailako segurtasun-neurriak ezartzeko konpromisoa. Hori guztia horrela izanda ere, arau izango dira ondoko hauek ere: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, norberaren datuak babesteari buruzkoa; otsailaren 25eko 2/2004 Legea, titulartasun publikoa duten norberaren datuen fitxategiei buruzkoa eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko; Europako Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 679 / 2016 Araudia, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, pertsonen datuak tratatzeko erari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari eta 95 / 46 / EE zuzentaraua indargabetzen duena (datuak babesteko araudi orokorra); datuen babesa arautzen duten gainerako arauak; eta instituzioarteko akordioetan, protokoloetan edo programetan jasotakoa.

63. artikulua. *Aldarri eta ekintza publikoak.*

1. Zarauzko Udalak, bere eguneroko lan eta ekintzetan, baita bere ordezkarien –politikoen nola teknikoan adierazpen eta agerpen publiko guztietan ere, argi eta garbi agertuko du indarkeria sexistarekiko bere arbuia.

2. Zarauzko Udalak indarkeria sexistaren aurkako erantzun instituzionaleko udal-protokolo bat prestatuko du non jasoko diren jarraitu beharreko pautak aldarri publikoak egitean eta hautetsien adierazpenetan, baita nola bideratu behar diren komunikabideekiko harremanak eta zein diren sexu-indarkeriaren inguruko ekintza publikoetarako hartutako konpromisoak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena. – Finantzaketa

Zarauzko Udalak bere aurrekontu orokorretan behar diren baliabide ekonomiko, material eta administratiboak kontsignatu eta bereiziko ditu bermatzeko Ordenantza honetan aurreikusitako zereginak eta neurriak bete eta gauzatzeko direla.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehena. – Genero-eragina

Genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioa aplikatzea. Arau hau indarrean sartzen den unean izapidetzen hasita baina amaituta ez dauden ordenantzen eta administrazio-egintzen proiektuei ez zaie egin beharko Ordenantza honetan ezarritako genero-eraginaren alde aurreko ebaluaketa.

Bigarrena. – Berdintasun-irizpideak aplikatzea kontratu eta lehiaketa publikoetan

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean, Zarauzko Udaleko organo eskudunek, Parekidetasun Departamentuaren proposamenez, instrukzioak emango dituzte gizon-emakumeen arteko berdintasun-irizpideak txertatzeko Zarauzko Udalaren kontratuak baldintza-plegu, administrazio-baldintza eta zehaztapan teknikoetan, Zarauzko Udaleko kontratazio-prozedurak abiarazten nahiz eurretan parte hartzen duten Zarauzko Udaleko gobernukide, teknikari nahiz zuzendari guztiek betearazi ditzaten.

2. Xedapen hau indarrean sartzen den egunerako abiatuta baina bururatu gabe dauden kontratu edota lehiaketa publikoek ez dute izango XIII. Kapituluko irizpideak bete beharrik.

Hirugarrena. – Irizpideen aplikazioa diru-laguntza eta hitzarmenei

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean, Zarauzko Udaleko organo eskudunek, Parekidetasun Departamentuaren proposamenez, instrukzioak emango dituzte berdintasun-irizpideak txertatzeko diru-laguntzetarako oinarrietan eta deialdietan, baita berdintasun-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko prozeduretan ere.

2. Xedapen hau indarrean sartzen den egunerako abiatuta baina bururatu gabe dauden dirulaguntza eta hitzarmenek ez dute izango XIV. Kapituluko irizpideak bete beharrik.

Laugarrena.- Indarkeria sexistaren aurkako erantzun instituzionaleko udal-protokoloa.

Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta bederatzi hilabeteko epean, Zarauzko Udaleko organo eskudunek, Parekidetasun Departamentuaren proposamenez, indarkeria sexistaren aurkako erantzun instituzionaleko

udal-protokolo bat prestatuko dute non jasoko diren jarraitu beharreko pautak aldarri publikoak egitean eta hautetsien adierazpenetan, baita nola bideratu behar diren komunikabideekiko harremanak eta zein diren sexu-indarkeriaren inguruko ekintza publikoetarako hartutako konpromisoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzea.- Indargabetuta gelditzen dira Ordenantza honen aurka egiten duten maila bereko edo apalagoko gainerako arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita 15 egun baliodun igaro ostean sartuko da indarrean (TAOAL, 70.2 eta 65.2 artikulua).

9.- ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAIARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO KONTRATUA EGUNERATZEA ETA ALDATZEA

2013 I 120 0002 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri eta udal taldeek beren jarrera azaldu ondoren, aho batez, erabaki hau hartu du Udalbatzarrak:

“2013ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen, batetik, ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAIARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA kontratatzeke administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea eta, bestetik, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko deialdia egitea.

Bestalde, 2013ko ekainaren 19an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen UTE ZARAUZKO HIRUBUSA aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzeko kontratu hori (TRANSPORTES PESA SA/TOLOSALDEA BUS SL). 2013ko uztailaren 23an sinatu zuten kontratua.

Kontuan izanda Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak egindako txostenak (0379/2017 eta 0402/2017 zk.) eta Mugikortasun Departamentuak aurkeztutako proposamena, Herritarren arloko informazio-batzordeak proposamen hauek onartzearen aldeko irizpena eman zuen, 2017ko maiatzaren 16an egindako bileran: alde batetik, kontratua eguneratzea eta, bestetik, kontratua aldatzea, hain zuzen ere, herriko autobusaren hirugarren linea martxan jartzeko.

Aurreko hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAIARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATUAREN hirugarren urtea bukatu ondoren, lehendik dauden bi autobus-zerbitzuen prezioa eguneratzea eta 449.033,67 eurotan jartzea (BEZ sartu gabe). Eta kontratuaren lehenengo hiru urteetako likidazioa, Udalaren alde 9.185,47 eurokoa izango da.

Bigarrena.- ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAIARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATUA aldatzea, herri-autobusen hirugarren linea jarritz, eta hurrengo baldintzetan:

- a) Erreserban dagoen autobusa martxan jarriko da hirugarren lineari zerbitzua emateko.
- b) Zerbitzuari 130.000 euroko erreferentziatzko diru-sarrerak jarriko zaizkio lehenengo bi urtetan.
- c) 1.0901.422.01.440.00.2017 aurrekontu-partidaren kontura jarriko da martxan linea hori.
- d) Hirugarren linea ekainaren 5etik aurrera jartzea aurreikusten da.
- e) Zerbitzu berriaren prezioa 103.651,33 eurotan jarriko da (BEZ sartu gabe); beraz, kontratuaren prezioa guztira 552.685 eurokoa izango da (BEZ sartu gabe).

Hirugarrena.- Egun dauden bi lineen urteko kilometroak doitzea, eta 151.191 kilometrotan jartzea; eta hirugarren linea berriarentzat, urteko 31.697 kilometro jartzea. Guztira, urteko, 182.888 kilometro izango dira.

Laugarrena.- Ebazpen honen jakinarazpena jaso eta gehienez ere hurrengo bost laneguneko epean, esleipendunak udaletxean agertu beharko du kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.”

10.- UROLA-KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEA

2017 Z 133 0001 espedientea

Udal taldeek beren azalpena egin ostean, zinegotzi guztiek aldeko botoa emanda, aho batez, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Aurtengo apirilaren 5ean Urola Kostako Udal Elkarteak bere Estatutuak aldatzeko proposamena bidali zion Udal honi (sarrera-erregistroan 4967 zk., apirilaren 6koa). Proposamen hori, Elkarteko Batzar Nagusiak 2016ko abenduaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onartu zen

Bertan, zehatz-mehatz azalduta datoz hondakinen bilketa eta garraio zerbitzua Udal Elkartetik bideratzeko ekimenaren xehetasunak. Horretarako, ordea, erakunde hori arautzen duten Estatutuak aldatu behar dira.

Proposatutako aldaketak aipatutako Estatutuen 5. artikuluari eragiten dio, eta bere helburua da erakundearen xedea aldatzea, horretarako, etxe, saltoki, zerbitzu eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuak sartuta.

Gaur egungo xedek honakoa jasotzen du: Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (44.4 artikulua), eta uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak, toki-erakundeetako

biztanleen eta lurralde mugaketaren Erregelamendua onartzen duenak (35.2 artikulua), ezarritakoaren arabera, elkarteak aldatuko badira beren Estatutuak onartzeko prozeduraren antzekoari jarraituko zaio.

Espedientea jendaurrean egon den epean, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Ikusita honako arau hauek: apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilea, toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onesten duena (35.3 art.); abenduaren 16ko 57/2003 Legea, tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzkoa (47.2 art.); apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (101 art. eta hurrengoak); apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen (11. art.).

Hori guztia ikusi eta kontuan hartuta, eta ikusita, halaber, Udaleko idazkari nagusiak egindako txostena, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, bertaratutako 19 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehena.- Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak hala proposatuta, Estatutu arautzaileen 5. artikulua aldaketa onartzea. Artikulu hori honela idatzita geratzen da:

Indarrean dagoen 5. artikulua honakoa dio:

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartea osatzen duten udalerrien garapena eta udalerrri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

- Prestakuntza eta enplegu programak; prestakuntza eta laneratzeta.
- Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.
- Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.
- Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.
- Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.
- Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.
- Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
- Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulu honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

5. artikulua idazkera berriak ondorengoa dio:

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartea osatzen duten udalerrien garapena eta udalerrri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak

udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

- Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzea.
- Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeo programak.
- Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.
- **Etxeetan sortutako etxeko hondakinak eta merkataritza eta zerbitzuetan eta industrian sortzen diren etxeko hondakinen antzekoak bildu eta garraiatzea.**
- Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.
- Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.
- Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
- Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

Bigarrena.- Urola Kostako Udal Elkarteari erabaki honen berri ematea.”

11.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ORDEZKARIEN ERROLDAN SARBIDEA IZATEKO HITZARMENAREN ERANSKINA ONARTZEA

2013 I 989 0001 espedientea

2014ko maiatzaren 28an egindako bilkuran honako hau erabaki zuen Zarauzko Udalbatzarrak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, informazioa elkarri lagatzeko, otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduaren bidez onartutako ereduaren arabera.

Orain, martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez, GFeko legezko ordezkarien errolda arautzen zuen Foru Agindua aldatu egin da, Gipuzkoako udalek aukera izan dezaten errolda hori erabiltzeko.

Horretarako, Foru Agindu horrek lankidetzeta-hitzarmenaren beste eranskin bat onartu du, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko; hain zuzen, D-7 eranskina da, “Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta” izeneko.

Gainera, komeni da kontuan hartzea, eranskin hori sinatuta, aukera egongo dela, batetik, Izfeko aplikazioetan GFeko legezko ordezkarien erroldan kontsultak egiteko, eta bestetik, ekain bukaeran Izfek udalen esku jarriko duen jakinarazpen elektronikoen aplikazio berria erabiltzeko.

Kontuan hartuta Udalarentzat interesgarria dela Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkarien erroldako datuetan sarbidea izatea eta jakinarazpen elektronikoen aplikazioa erabiltzea, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren eranskina sinatzea, informazioa elkarri lagatzeko, eranskinaren idazketarekin bat etorriz.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea Zarauzko Udalaren izenean eranskin hori sinatzeko.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, dagokion ziurtagiriaren bidez, eta, halaber, eranskina beteta bidatzea.

D-7 ERANSKINA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTA

1.- Deskripzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

2.- Informazio lagapenaren helburua.

Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.

3.- Arau oinarria.

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

4.- Datuen titularraren baimena.

Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharrezko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

5.- Eman beharreko informazioaren edukia.

Udal hartzaileak kontsultatu ahal du Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

6.- Informazio lagapenerako prozedura.

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) Atzipena udalaren zerbitzu telematikoen ataritik: Legezko ordezkartzaren bat duen pertsonak ordezkatzaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoen bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkartza baliozkotu du ordezkarien erroldan dagokion kontsulta eginez.
- b) Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legezko ordezkarien erroldan atzitu ahal du, oinarrizko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta j datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsulten zenbatekoa baliabide elektronikoen erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkaritza erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez.

9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Idazkari nagusia: Ines Diaz de Villafranca Arzamendi. 14569895Q. idadzkaria@zarautz.eus.

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEk) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunaren inguruan.

Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legezko erroldaren datuei ematen dieten erabileragatik, eta, zehazki, haiek eskuratzen dituzten datuen proportzionaltasun, egokitasun eta bidezkeriaz.

10.- Solaskideak.

Zuzenbideko gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Idazkari nagusia: Ines Diaz de Villafranca Arzamendi. 14569895Q. idadzkaria@zarautz.eus. Tlf. 943 005102.

Informatika gaietarako: IZFE, SA / Informazio eta Komunikazio Teknologietako (IKT) teknikari laguntzailea: Iñaki Iriondo Aizpurua. 943130941W. informatika@zarautz.eus. Tlf. 943 005107.

Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Idazkari nagusia: Ines Diaz de Villafranca Arzamendi. 14569895Q. idadzkaria@zarautz.eus. Tlf. 943 005102.

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

11 Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen individualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daitekeen gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.
- Erroldan inskribatu gabeko legezko ordezkari buri buruzko informazioa atzitzeko balu, horren berri emango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, badagokio, ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.

12.- ACCU GIPUZKOA ELKARTEAREN "BEHARRA DAUKAT!" PROIEKTUARI ATXIKITZEA

2017 GGGG 0010 espedientea

ACCU GIPUZKOA Elkarteak, Gipuzkoako Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixoen elkarteak, Zarauzko Udaleri "BEHARRA DAUKAT!" proiektuari atxikitzeko eskaera egin dio.

2017ko maiatzaren 10ean egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak (aho batez)

ERABAKI DU

Lehenengoa.- “BEHARRA DAUKAT!” proiektuari atxikitzea. Zarauzko Udala egitasmoari atxikitutako erakundeen zerrendan agertuko da, eta baita egitasmoarekin zerikusia duten albisteetan ere.

Bigarrena.- Udal eraikin hauen komunetan “BEHARRA DAUKAT!” eranskailua jartzea:

- Herritarren Arreta Zerbitzuan
- Portu etxen
- Turismo bulegoan
- Kiroldegian
- Gizarte Zerbitzuetan (Parekidetasuna)
- Euskaltegian
- Gaztelekuan
- Sanz Enea kultur etxean
- Zarautz Lur bulegoan
- Udal musika eskolan
- Udaberri jubilatuen etxean eta tabernan
- Komun publikoetan.

Hirugarrena.- Zarauzko dendekin, ostalaritzako establezimenduekin eta elkarteekin bitartekari lanak egitea, egitasmoa ezagutzera emateko eta euren atxikimendua lortzeko.

13.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Munizipalizazio prozesuen defentsarako mozioa

2017 O 001 0018 espedientea

Segidan, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

MUNIZIPALIZAZIO PROZESUEN DEFENTSARAKO MOZIOA

Zioen azalpena

I .- Alderdi Popularraren Estatuko gobernuak, joan zen Apirilak 4ean, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorren zirriborroa aurkeztu zuen. Aurrekontu antisozial batzuk izateaz gain, alderdi honek hainbat udala aurrera eramaten ari diren zerbitzu publikoen bermunizipalizazio prozesuak oztopatu nahi ditu.

Austeritate politika jarraitzen duen aurrekontuak dira, murrizketak sakonduz eta oinarritzko zerbitzu publikoen bermatzea ahalbidetzen dituzten baliabideak urrituz.

Aurrekontu hauetan, Erkidegoak eta tokiko entitateak izan dira bereziki kaltetuak, bai finantzaketa eta baita inbertsio alorrean.

Popularren Gobernuak hainbat udalek ekindako zerbitzu publikoen bermunizipalizazio prozesuak eten nahi ditu, hiritarren aldetik gero eta hedatuago dagoen eskaera, herritar guztiei ukaezineko eta oinarrizko diren hainbat eskubide eta zerbitzuen eskuragarritasuna. Alderdi Popularrak goitik azpitik lortzen ari diren konkistekin bukatu nahi du, demokrazia eta tokiko autonomiari eraso, kudeaketa politiko eredu batzuk inposatuz demokratikoki hautatutako beste aukera batzuk jazarriz.

Estatuko Aurrekontu Orokorren 27. xedapen gehigarriak, administrazioek kontratuak amaitzean kontratisten kontzesio langileak ezingo dituztela langile publiko bezala aitortu dio. Gaur egun arte, bermunizipalizazio prozesuetan, arruntena enpresa kontratisten pertsonala administrazioa pasatzea da, hasiera baten finko mugagabe bezala eta sarrera prozedura ondoren, behin betiko.

Xedapen honek baita ere dio, titularitate publikoa duten merkataritza elkartetan sartzen diren langileak, sarrera berriko pertsonal bezala hartuko direla erreposizio tasaren kalkuluari dagokionez. Ondo dakigunez, erreposizio tasa, udalek pertsonala kontratatzeke daukagun muga da. Muga honek iada hamar urte betetzen ditu, krisi hasieran udal administrazioei inposaturikoa eta administrazioek kontratatu ahal duten langileen zenbaki zehatz bat ezartzen duena.

Xedapen hau indarrean sartzeak, kontuan hartzeko edozein bermunizipalizazio prozesuri atea ixtea suposatzen du.

II .- Argi azaleratzen da oraingoan Alderdi Popularraren xedea, bermunizipalizazio prozesuak eraso eta sabotai egitea dela, pribatizazioak inposatzea herritarren interes eta eskubideen aurka.

Neurri honekin, pertsonal kontratazioa erabiltzen da zerbitzu publikoak bermunizipalizatu edo zuzenki kudeatu ez daitezten. Ez badago edo ezin bada pertsonalik kontratatu zerbitzua emateko, ez dago zerbitzua bertan behera utzi edo kudeaketa pribatuarekin jarraitu besterik. Erabaki honek udal autonomia larriki zauritzen du, udaletxeei zerbitzu publikoen kudeaketa eredu erabakitzeko eskubidea lapurtuz.

Zerbitzu kudeaketaren pribatizazioaren inposaketa hiritarren eskubideen aurka doa orokorrean eta erabiltzaileen aurka modu zehatzean, gizarte politika eta demokratizazio printzipioen kontra. Gero eta froga gehiago daude kudeaketa publiko eta zuzenak dituen onurak bai ekonomikoki eta baita zerbitzuen kalitateari dagokionez. Kontuen Auzitegiak berak aitortu zuen 2011kako txosten batean, kudeaketa pribatua garestiagoa dela, eraginkortasuna baxuagoa den neurrian.

Guzti hau ahaztu gabe, kontratazio publikoaren kasuan, zerbitzuen zeharkako kudeaketa edo pribatizazioa demokrazia eta gardentasunaren aldetik askoz pobregoa direla, egunero berriak ikusi besterik ez dugu, ustelkeriak alor honetan duen dimentsioarekin.

Ondorioz, arrazoi multzo handia dago Espainiar Estatuko Gobernuak aurkeztu dituen aurrekontuak ez defendatzeko. Inposaketa ideologiko honek, tokiko udalen

autonomia, kudeaketa ona, zerbitzu publikoen bermatzea eta gehiengoaren eskubide eta interesak zapuzten ditu.

III .- Beste alde batetik, 10 urte dirauen eta krisi bezala mozorrotzen duten iruzur honetan, udal erakundeak izan dira zorra modu eraginkorren murriztea lortu duten administrazio bakarrak, zerbitzu publikoak mantentzen saiatu direnak baliabideen murrizketa jasanez eta aurrekontu egonkortasun lege zorrotzen mehatxupean.

Honenbestez, Espainiar Estatuko Gobernuak berak ekonomia berreskuratzen ari diren diskurtsoak egiten dituen bitartean, udal baliabideen askatzea nahitaezkoa da zerbitzu publikoak bermatu daitezen, pertsonala berritu eta kontratazio berriekin zerbitzuak indartuz kalitatezko enplegua garatzen den heinean.

Azken urteotan indarrez inposaturiko austeritate politikak, fiskalitate eta finantzaketaren itotzearekin, gizarte ezberdintasunak areagotu dituzte, bazterkeria arriskuan dauden herritarren kopurua handituz. Egoera hau aldatzeko modu bakarra zerbitzu publikoen indarra berreskuratu eta sendotzea da, lurralde administrazioen aldetik baina bereziki udal erakundeen eskutik.

Adierazitako arrazoi guzti hauengatik, Zarauzko udalbatzarrak ondorengo akordioak hartzen ditu:

- 1.- Espainiar Gorte Nagusiari 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorretako 27. Xedapen Gehigarria ezabatzeko eskatzen diogu.
- 2.- Espainiar Estatuko Gobernuari, administrazioei dagokien kontratazio publikoa mugatzen duen erreposizio tasa ezabatzeko eskatzen diogu, herritarrentzako zerbitzuak ematen dituzten Udal Administrazioen baliabideak askatuz, Europako Tokiko Autonomia Gutuna-k dioen bezala.
- 3.- Akordio hauen berri ematea Espainiar Estatuko Gobernu, Kongresuko Mahai eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei.

Mozioa irakurri eta gero, gaia eztabaidagai jarri dute.

EAJ-PNV udal taldeak eskatuta, mozioaren aurkezleak, IRABAZI ZARAUTZ taldeak, puntuz puntu bozkatzea onartu du.

Horrela bada, batzarburuak horrela aginduta, mozioaren puntuak banan-banan bozkatu dituzte. Hauxe izan da emaitza:

1. PUNTUA

Aldeko botoak:	9	(5 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	10	(10 EAJ-PNV)
Abstentzioak:	—	

2. PUNTUA

Aldeko botoak:	19	(ahobatez)
----------------	----	------------

3. PUNTUA

Aldeko botoak:	19	(ahobatez)
----------------	----	------------

Ondorioz, bozketa bakoitzean jasotako emaitzarekin, mozioaren 1. puntua atzera botatzea eta 2. eta 3. puntuak onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

14.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– PPren ustelkeriaren aurkako mozioa

2017 O 001 0019 espedientea

Era berean, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

PP-REN USTELKERIAREN AURKAKO MOZIOA

Zioen azalpena

Mariano Rajoy presidentea lekuko bezala deklaratzera deitua izan zen Gürtel izeneko kasuan, Auzitegi Nazionalako instrukzioko epaitegiak (5 zk.) apirilaren 19an emandako autoaren bidez. Autoaren arabera, Alderdi Popularrak, kasu honetan prozesatuta egonda ere, “uko egin zion gertaerei buruz deklaratzeari”, eta horregatik egin da zitazio hori.

Zitazio horren eta ondorengo jarduera judizial eta fiskalen ondorioz, Mariano Rajoy eta Alderdi Popularrara egoera sostengaezin batean daude. Egunero azaltzen dira Alderdi Popularrarekin edo bertako kideen enpresa ustelgarriekin lotutako ikertu, atxilotu, kereilapeko edo prozesatu berriak.

Horrela atxilotu eta espetxeratu zuten Ignacio Gonzalez Madrileko Komunitateko presidente ohia, eta horrekin hasi zen Lezo kasua izeneko prozedura. 60 pertsonatik gora sartuta daude bertan, eta besteak beste, Ignacio Gonzalezen familiartekoak, Eduardo Zaplana (Aznarren garaiko ministroa), Inassako presidentea (Canal Isabel II enpresaren filiala Hegoamerikan), Edmundo Rodríguez Sobrino edo Alberto Lopez Viego (Madrileko Komunitateko Presidentetzako kontseilariordea). Canal Isabel II enpresaren kudeaketarekin erlacionatutako delitu hauengatik daude inputatuta: funtsak bidegabeki erabiltzea, erakunde kriminala, eroskeria, dokumentuak faltsutzea, kapitalak garbitzea, prebarikazioa eta iruzurra.

Hainbat miaketa eta jarduera ere egin dira enpresa batzuen (OHL eraikitzailea, Indra edo PricewaterhouseCoopers) eta horien zuzendarien kontra (esate baterako, Villar Mir enpresaria edo Javier López Madrid). Horiei ikertzen zaiena da, OHLren

kasuan, ea 1,4 miloi euroko eskupekoa ordaindu zioten Ignacio Gonzalez; eta Indraren kasuan, ea PP finantziatu zuen 700.000 euroekin.

Alderdi Popularrean ere Carlos Florianok aitortu du bazekiela Ignacio Gonzalezek kontu bat zuela Suitzan, baina ez zuela epaitegietara eraman.

Ustelkeria oso-oso larria izanda ere, hura ezkututzen saiatzeak edo inplikaturako pertsoneri Estatuko erakundeetatik laguntza emateak erabat zalantzan jartzen ditu Zuzenbide Estatuaren oinarriak eta arkitektura instituzionala.

Bereziki kezkgarria da ikustea PP nola ari den erabiltzen Fiskaltza eta Ustelkeriaren Kontrako Fiskaltza. Maniobrak egin ditu ustelkeriarekin lotutako delituetako auzi judizial jakinen fiskal arduradunen lana oztopatzeako eta eragozteko.

Ustelkeriaren Kontrako Bulegoko fiskal nagusi Manuel Moixek ahaleginak egin zituen, otsailean kargura iritsi bezain laster, ikertuen entzuketak ez luzatzeko eta planteaturako miaketetako bat ez egiteko. Fiskaltzaren Estatutuaren 27 artikulura jo behar izan zuten gai hau aztertzen 18 urte daramatzaten fiskalek Ustelkeriaren Aurkako Fiskalen Batzarra deitzeko. Hor, gehienak euren buruzagiaren aurka egin zuten, eta miaketa egitearen alde jarri ziren.

Moix saiatu da, baita ere, Carlos Iañez fiskala Lezo kasutik baztertzen. Eskatu dio uko egin diezaiola Madrilen duen plazari eta Granadako bere postura itzul dadila. Iañez jaunak ezezkoa eman dio.

Jarduera horiek guztiak egiteko, Jose Manuel Maza Estatuko Fiskal Nagusiaren abala eduki du Moix jaunak. Jose Manuel Mazak berak eragotzi zion Ministerio Publikoari Pedro Antonio Sanchez Murtziako eskualdeko presidente ohia akusatzea, kasuko fiskalen iritziaren aurka, nahiz eta fiskalek ikusten zituzten auzipetzeko arrazoiak. Berak aldatu zituen, baita ere, "ehuneko hiru" izeneko kasuko fiskal arduradunak.

Bitxia da, autoetan azaltzen den bezala, ikertuetako bik (Gonzalez eta Zaplana) elkarri SMSa bidali ziotela esanez Justizia Ministerioarekin hitz egin dutela "ustelkeriaren kontrako fiskaltzan Moix izeneko tipo serio eta on bat jartzeko". Rafael Catala Justizia Ministroak berak ere babesa bidaltzen zio Ignacio Gonzalez izeneko mezu honekin: "Eskerrik asko Nacho. Besarkada handi bat. Ea laster bukatzen diren iskanbilak".

Gainera, ikerketan azaldu zen ustez txibatazo bat egon zela, gaur egun atxilotuta daudenean euren jokabidea aldatu zutelako, jakin baitzen Pablo Gonzalezek (Ignacio Gonzalezen anaiak) bilera bat egin zuela Estatuko Segurtasuneko idazkari Jose Antonio Nietorekin (Barne Ministerioko bigarrena).

Mariano Rajoyk, berriz, ez ditu gaitzetsi ez Fiskaltzaren, ez Justizia eta ez Barne Ministroen jarduerak, eta Alderdi Popularraren lehendakari denetik beti egin izan duen bezala jokatu du oraingoan ere: bere burua ezkutatu eta ezertxo ere ez egin ustelkeriaren kontra borrokatzeako, nahiz eta bere alderdia ustelkeriaren protagonista nagusia den.

Horiek horrela, Irabazi-Zarautz udal taldeak ondorengo mozioa aurkeztu du, eztabaida eta onar dadin:

MOZIOA

Zarauzko Udaltzarrak erabat baztertzeko Lezo izeneko kasuan pixkanaka ezagutzen ari garen gutxieneko etika politikoaren kontrako jarrerak: bai ustezko ustelkeria kasuak, bai Ustelkeriaren kontrako Fiskaltza eta Estatuko beste erakunde batzuk erabiltzea ikerketak oztopatzeko.

Era berean, Mariano Rajoyren eta Estatuko Gobernu osoaren jarrera gaitzesten du, halako egoeren aurrean ez dutelako erantzun irmorik eman, eta eskatzen dio Estatuko Fiskal Nagusia gaitzetsi dezala, bere obligazioak behin eta berriz ez betetzeagatik.

Gobernu zentralari, Kongresuko Mahaiari eta Diputatuen Kongresuan ordezkari izan dauden talde parlamentarioei akordio hau helaraztea.

Proposamena eztabaidatu ostean bozkatzeari ekin diote, eta osoko bilkuran dauden 19 zinegotzietatik aho batez, baiezko botoa eman diote.

Beraz, Udaltzarrak transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

15.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Zarauzko udalerrian animalien babesari buruzko mozioa

2017 O 001 0020 espedientea

Azkenik, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako hurrengo proposamena irakurri dute:

ZARAUZKO UDALERRIAN ANIMALIEN BABESARI BURUZKO MOZIOA.

Argi dago, animalien eskubideak eta ongizatea dela-eta, kezka antzematen hasi dela duela denbora gutxitik hona gizartean, eta herritarren interes horrek adiskidetu egiten gaitu gurekin batera bizi diren gainerako espezieekin; giza kontzientzia altruista eta orokorrago baten isla da hori, eta kontuan hartzen du gizakion ongizatea, baina, baita ere, planeta osoko gainerako izakiena ere.

Areagotzen ari den sentsibilitate horrek talka egiten du, zenbaitetan, tradizioarekin, esate baterako, jai eta ikuskizunetan animaliak erabiltzearekin. Dena dela, animalien tratu txarra ekiditeko protokoloak edukita, eta indarrean dauden araudiak beteta, horrelako ekitaldiak harmonizatu ahalko lirateke, eta harmonizatu egin beharko lirateke, espezieen duintasuna errespetatuko bada.

Denbora berriek konpromiso handiagoa eskatzen dute aurrerapenarekin, alegia, izakien tratu txarren aurkako borroka suposatzen duen aurrerapenarekin, eta horretarako, tratu txarra zenbait legeren bidez araututa egon beharko litzateke. Berez, aipatutako sufrimendua eragiten duten jarduerak batzuk araututa ez

daudenez, eta gainera, legeetan salbuespen deigarriak daudenez, udalek eskumena daukate udalerrian egiten diren ikuskizunetan baimenak arautzeko eta, hortaz, animalien ongizatea eta ingurumena errespetatu eta horiekin bateragarriak diren ikuskizunen aldeko apustua egin behar du.

Laburbilduta, gure ustez adierazle garrantzitsuak daude frogatzen dutenak gizarteak eskatzen duen aldaketa gertatzen ari dela, izan ere, animalien aurkako tratu txarrak albo batera utzi eta, errespeturantz eta elkarbizitzarantz, aurrera egiten jarraitu nahi du gizarte horrek.

Horregatik guztiagatik, ondorengo mozioa aurkezten da, ondoren adierazitako eskaerak kontuan hartuak izan daitezen Zarauzko udalerrian.

1.- Animaliak eduki eta babesteari buruzko ordenantza berri bat bultzatuko du Zarauzko Udalbatzarrak. Ordenantza horretan, ikuskizun eta erakusketa publikoetan animalien erabileraren erregulazio zorrotza jaso beharko da, horrelako ekintzek animalien tratu txarra dakarten kasuetarako edo animalien ongizatearen aurkakoak direnerako.

2.- Animalien babeserako elkarleen bitartez, Zarauzko Udalak protokoloak bultzatuko ditu festetan, idi-probetan, desfileetan eta antzeko ekitaldietan animaliak nola maneiatu behar diren jakiteko. Protokolo horiek dagokien ordenantzetan sartzeaz gain, aginduak ere emango dituzte, besteak beste, elikagai egokiari, zama eramateko gaitasunari, jarduera eta deskantsu denborei buruz, betiere kontuan izanda erabilitako espezie bakoitzaren baldintza naturalak.

3.- Harik eta aipatutako alderdiak arautu arte, ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEARI BURUZKO ORDENANTZAn, Zarauzko Udalbatzarrak honakoak debekatzea erabakitzen du:

- Zarauzko Udalerriko jai desberdinetan barraketako atrakzioak jartzea, baldin eta erreklamu gisa animaliak erabiltzen badituzte.
- Animalia basatiak itxituretan erakustea instalakuntza ibiltarietan, kalean eta beste espazio publiko batzuetan edo merkataritza-gune eta dendetan.
- Animaliekin ikustaldi publikoak ematea, animaliei tratu txarra ematen bazaie.

4.- Era berean, Zarauzko Udalak hitzematzen du animalien ongizaterako arauak betetzen ote diren ikusteko zaintza handitu egingo duela.

5.- Udalak kaleko katu-koloniak antzutu egingo ditu, nahi duen babes-erakundearen laguntzarekin batera, gure udalerrian gehiegi ugaltu ez daitezen. CES metodoa (capturar-esterilizar-soltar). Era beran, kolonia horientzako gune babestuak eskatzen dizkiogu Udalari.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	7	(5 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Beraz, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin, atzera bota du IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako mozioa.

16.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak eta hamarrean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.